

GOIERRITARRA

124 p.k. Ordizia

GOIERRITARRA ALDIZKARIA.

12. zenbakia.

91ko Otsaila.

—Goierriko euskaldunon aldizkaria—

Debaldeko aldizkaria



- ❖ GASTESI legorretarrak, Goierriko txistosoenak
- ❖ 1968: LAZKAO. Poliziaren 1.go objetiboa
- ❖ Baserritik Ormaiztegiko ZUMALAKARREGI MUSEORA
- ❖ KOLABORAZIOAK:
Alfabetatzearen Nazioarteko Urtea iazkoa. Suarez eta Goierriko zinegotzia. Larramendi eta Historiko apunteak. Sexua, idazleak eta beste
- ❖ Goi-herri literatura
- ❖ BI GOIERRIAR ILUSTRE:
J. Larrañaga, «Goierri» eta A. Garmendia Otaola
- ❖ GOLKOKO GERRARI EZ, ezta...!
inkestan; Bus ordutegiak agendan; Txutxumutxuak, paperetatik irakurri dugu, nahas-mahasak, irakurlea mintzo, iritziak, denborapasak, antzerki kritika, bertsoak. Hori da dena.

— PERIODIKOAK —

publizitatea

H
E
R
R
I
G
I
N
T
Z
A
N

LAN KIDE AURREZIA  EUSKADIKO KUTXA


190
Sukurtsal

164
Kooperatiba
Elkartu

20.000
Lanpostua

230.000
Milioiko Aurrezia

Euskadiko
Kutxa



 **LAGUN ARO**
SEGUROS ASEGURUAK

Nafarroa Etorbidea, 27 — Telefonoa: 88 62 50 / 88 31 00
B E A S A I N

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Bertako txalaparta eta albistaria

Isiltzen ez den zintzarria

12. zenbakia. 91.eko Otsaila. Debaldeko alea. Tirada: 1.500 ale.
100 suskripzio.

Argitaratzailea: "Goierritarrak"

Kultur Elkarte. Dorre- etxea,
behea (Correos azpia).

Tfna: 889612.

124 posta kutxa. Ordizia. Pulizitate
dirusarrerak. GK 01* 1.427.276-8

2. etapaldirako orain arteko

Udal-Herri laguntzaileak: Olabe-
rria, Itsasondo, Alzaga, Arama, Ez-
kio-Itsaso, Gabiria, Idiazabal, Ikaz-
tegieta, Legorreta

Onartu eta agindu digute: Zaldi-
bia, Ordizia eta Beasaingoek.

Ukatu: Lazkaok

— Ormaiztegi, Ataun, Segura, Mutiloa,

Zerain eta Zegamakoek zain.

Erredakzioa: Jon Mikel Arano,
Xabier Narbarte.

Aholkulariak: Tere Irastortza, eta
Andoni Sarriegi.

Ale honetan kolaboratu dute: Tere
Irastortza, Aitor Larrañaga, Ramon
Ugalde, Andoni Sarriegi, Patxi Zu-
bizarreta, J. M. Arandia, Mikel Ara-
mendi, Miriam Berruete, Jexus Lete,
publizitate emaile, inkestatu eta be-
rriemaileak.

Gure eskerrik beroenak: Era ba-
tera edo bestera lagundu nahi liguke-

tenei (arazo txiki asko ditugu, dei
egiguzu, zure aportaziotxo behar-
dugu, lan txikiren bat jarriko geni-
zuke), gauzak errazten dizkiguzue-
noi eta nola edo hala parte hartzeko
irrikitan zaudetenoi.

**Fotokonposizioa, maketazioa eta
inprimaketa:** ANTZA.

Lege Gordailua: SS 926/89

**Gaurko edo biharko kolabora-
tzaileei:**

Gure Telefonoa: 88 96 12

**Irakurri eta zabaltzazu Goierrri-
tarra!**



**«Goierritarrak»
Kultur Elkarte**

Zorrotz

Suarez eta Goierriko zinegotzia

1977tik aurrera, Espainiako aldaketa
politikoen aroan, Adolfo Suarez J.a
(UCDKoa orduan) Espainiako Gobernu-
ko Lehendakari zela, Parisera joan zen bisita
ofizialean eta hango aldizkari ospetsu ba-
tek Euskal Herriaz eta bereziki euskarari
buruz galdera eginik, honelamoduzko
erantzun bat jaurti zuen: «*Kontxo, esan
diezadatelari niri ea nola arraio irakats de-
zaketen Fisika Nuklearra euskaraz*».

Ba ordurako Leioako Fakultatean Zien-
tzia Fisikoak euskaraz irakasten ari ziren
eta garai beretsuan UZEIko Fisika Hize-
gia argitaratu zen hango irakasle batzuri eta
beste zenbait lankideri esker eta gai nu-
klearrak ere batean irakasten zerabiltzaten
legez, bestean ere argitaratuta azaldu ziren
noski.

Hamar-hamabi urteotan zehar gauza ba-
tzuk egin egin dira eta beste batzuk ez. Udal
eta Erakunde batzutan, eguneroko funtzio-
namenduan erdaraz soilik jarduteko gas-
tatzen diren eta normalizat jotzen diren
diru-multzo handien ondoan, *euskarazko*
ihardueretan ere (ez gehiegi baina) zertxo-
bait gastatzeko aurrekontu batzuk onartu
egin dira eta egiten dira. Tartean ordea ez

da gizon eta andre zuhurrik falta.

Hala azaldu zen behintzat harako Goie-
rriko Udalerrri bateko alderdi abertzale ba-
teko zinegotzi hura, duela zenbait hilabete,
dexente jada, halako euskarazko susta-
pen-ekintza jakin baterako dirulaguntza-
eskea mahaian jartzean ondorengoa esa-
nez: «*Baina euskarak ordea, zubiak egi-
teko ez du balio*». Zinegotzi Jaun hori tek-
nikaria da eta *euskaraz* ere, tira, zertxobait
bederen alfabetatua.

Bitxia da halabeharrez, baina, hark hori
esan eta denbora gutxira argitaratu zen El-
huyar-ek (1989ko Durangoko Azokarako)
neuk moldatutako "Materialen Erresis-
tentzia", hain zuzen ere, zubiak eta zubien
modukoak egiteko ikasten hasteko balio
duen liburua eta Zinegotzi Jaun hark bere
garaian, nik neuk bezalaxe erdaraz ikasi
behar izan zuena. Gaur jada, Donostian,
Arrasaten etab. teknikari-gaiei irakasteko
erabiltzen ari dena.

**Beharbada apur bat eguneratzeko es-
kaera egin beharko genieke Zinegotzi J.
horri eta beste teknikari euskaldun
abandonatu samarrei ere, euskarak ja-
da, beste gauza batzutarako bezalaxe,**

*zubiak egiteko ere balio duela adieraziz
eta beraiek Herri honetan euskaraz
iharduteko nahiz euskaraz ihardun
nahi dugunok antolatutako ekintzeta-
rako beren botere-jarlekuetatik opa
dizkiguten diru-kopuruak baino han-
diagoak eskaintzen ikas dezaten. Izan
ere, beraiek erlojua geldituta eduki-
tzeak eta tren hori galdu izanak, kalte
handiak ekar bait diezazkigukete geure
hizkuntzan trena galdu gabe eta erlojua
atzeratu gabe jarraitu nahi dugunoi.*

Zer alde dago funtsean eta muinean, or-
duko Suarez J.aren eta gaurko Goierriko
zinegotzi teknikari abertzaleak dituen eri-
tzien artean?

Andoni Sarriegi

(**Erredakzioaren Oharra:** Lan hau jaso ge-
roztik komunikabideen bidez jakin ahal izan
dugunez, delako «Materialen Erresistentzia»
izeneko liburu horrek Bilbao/Bizkaia Kutzako
1990 «Azkue» Saria jaso du Jose Mari Pitarke
J.ak egindako Fisika-arloko «Tunel elektrosko-
pioaz eta solidoetako elektroiz eta fotoi-emi-
sioaz» izeneko tesiarekin erdibanatuta. Zorio-
nak Andoni eta zorionak denoi).

AUTOBUS ORDUTEGIAK

PESA GARRAIOAK. BEASAIN, IDIAZABAL Norabidea. **GELTOKIAK:** Altamira, Arboleda, Torresol, Malkasko.

ASTEGUNAK:

5,30-7-7,30-8,40- -10-10,40-11,30-12,30-13
13,30-14,30-15,30-16,30-17-17,30-18
-18,30-19-19,30-20,30-21,30-22,30.

LARUNBATAK:

5,30-7,30-9-10-10,30-11,30-13,30-14,30-15,30-
16,30-17,30-18,30-19,30-20,30-21,
30-22,30.

IGANDE ETA JAI-EGUNAK:

5,30-13-17-18-19-21-22.

**SARASOLA AUTOBUSAK. LAZ-
KAO, ATAUN** Norabidea. **GELTOKIAK:** Malkasko, asteazkenetan Torresol.

ASTEGUNAK:

7,50-9,20-9,50-11,05-12,05-13,05-14,30-15,10-
15,45-16,50-17,30-18,30-19,05-20,
05-21,20.

ASTEAZKENAK:

7,35-8,40-9,10-10,10-11-11,30-12,30-13
Trsol.

IGANDE ETA JAI-EGUNAK:

16,55-17,25-18,30-19,05-20,05-21,10-21,40.

**ETXABE AUTOBUSAK. ZALDI-
BIA** Norabidea. **GELTOKIAK:** Arboleda, Renault.

ASTEGUNAK:

7,45-10-12,15-13-13,45-15,30-16,10-17,10-
18,10.

ASTEAZKENAK:

7,45-8,50-9,15-10-10,30-11-11,30-12,15-13-
13,45-15,30-16,10-17,10-18,10-19,10-20,10.

LARUNBATAK:

10-12,30-18,10-20.

IGANDE ETA JAI-EGUNAK:

16,45-18,10-20,10.

**ZEGAMA AUTOBUSAK. SEGU-
RA, ZEGAMA** Norabidea. **GELTOKIAK:** Torresol.

ASTEAZKENETAN BAKARRIK:

7,30-9-10,30-12-19.

**ZUBELDIA AUTOBUSAK. ALE-
GIA, AMEZKETA** Norabidea. **GELTOKIAK:** Arboleda.

ASTEAZKENETAN BAKARRIK,
goizez eta ordu jakinik gabe.

LANA- 24 urteko mutila eskaintzen da txofer partikular gixa edo eta enpresarako, (esperientziduna), almazen edo karretilarako. Jose. 801283. Mari-solegatik galdetu.

- Orduka lan egiteko emakumea eskaintzen da. 888520.

- Haur bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko neska euskaldun bat behar da. 888497 telefonoa. Arratsaldeko 7'30tik 9'30etara.

- Neska eskaintzen da, esterna gixa edo jatetxerako. (Esperientziduna). Euskaraz badaki. Milagros. 801283.

- Haurrak zaintzeko neska eskaintzen da. (Esperientziduna). 722398-888917. Isabel.

SALMENTAK - Kotxe berria saltzen da. Citroen A.X. I.I. RE. (ETBko «Kalejira» lehiaketan irabazia). (943) 884284.

- Bigarren eskuko pianoa erosiko nuke. Merkea. 880879.

- Txakur bat saltzen dut. Cocker gorria, zortzi hilabete eta txakur Aleman arrazako umaldi bat. 888068.

- «Vespa» bat salgai. 200-E. SS-O. 882179.879.-

- «Mobylette» bat salgai. Ia berria. 801444.

ETXEBIZITZAK - Beasainen etxebizitza salgai. Sukalde, sala, bainugela eta hiru logela. Sotoa eta bi balkoi. 10.200.000. 14.00etatik 15.00etara edo bestela gaez: 883838 tfna.

- Oheak salgai. S.Ignazio kalea. 1-4ezk.

- Karabana gordetzeko lekua behar dut. 883772.

- Garaje itxia salgai Beasainen. 886397.

- Errentako Etxebizitza edo apartamentu baten bila nabil. Ordizian edo inguruan. 884652.

- 100eta piku m2-etako etxebizitzak salgai Itsasondon. Tximenetak eta antena parabola, berogailuak instalaturik, e.a. Salneurri oso interesgarriak. Tfna.: 884936.

AGURRAK

Kuku miku!/ Xoxoak sasia umeak ditu/ Belek haur idiotak jango al ditu/ Belek alkatea/ Berak egin du legea Herrikoia.

EKITALDIAK

LEGORRETA KO OTSAILA -MARTXOKO FILME EMANALDI EGUNAK

Otsailak: 17/18, «Rain Man»; 24/25, «Las noches de Harlem». **Martxoak:** 3/4, «Regreso al futuro»; 10/11, «Nunca fuimos angeles»; 17/18, «Dick Tracy».

ORDIZIAKO MENDIZALEEN IRTEERAK

Otsailak: 18, Legazpia-Otaino-Korosti-Legazpi. 25, Uzturre. **Martxoak:** 4, Madariaga-Erlo-Azpeitia. 11, Guardetxe- Irumugarrieta. 18-Ganbo.

BEASAIN-ORDIZIAKO GOARDIAKO FARMAZIAK

Otsaila 15: Arriola; **16,17:** Arriola; **18:** Urbizu; **19:** Atorrasagasti; **20:** Azpilikueta; **21:** Jauregi; **22:** Laurnaga; **23,24:** Cuesta; **25:** Cuesta; **26:** Arriola; **27:** Urbizu; **28:** Atorrasagasti.

Martxoak: 1: Azpilikueta; 2-3: Atorrasagasti; 4: Jauregi; 5: Laurnaga; 6: Cuesta; 7: Arriola; 8-9-10: Urbizu; 11: Atorrasagasti; 12: Azpilikueta; 13: Jauregi; 14: Laurnaga; 15: Cuesta.

BEASAINGO IGANDEETAKO DANTZALDIAK

Otsailak 24: Egan; **Martxoak 10:** Iza-di; **Martxoak 24:** Egan;

AUTOBUS ORDUTEGIAK.

ORDIZIAK

PESA GARRAIOAK. GELTOKIA: Torresol. **BILBORANTZ:** EGUNERO: 7,50; 17,20. **TOLOSARANTZ:** EGUNERO: 9,45; 19,15.

LA BURUNDESA GARRAIOAK. GELTOKIA: Torresol. **LIZARRARANTZ:** ASTELENETIK **LARUNBATERA:** 17,45. **DONOSTIARANTZ:** ASTEARTETIK **LARUNBATERA:** 8,45.

LA ESTELLESA AUTOBUSAK. GELTOKIA: Torresol. **LIZARRARANTZ:** EGUNERO: 8,45; 16,45. **DONOSTIARANTZ:** EGUNERO: 11,15; 18,30. **TRANSCONOR. GELTOKIA-Torresol. ESKORIARANTZ:** EGUNERO: 14,40; 19,40. **JAIEGUNAK.** 14,40; 18,20; 21,20. **DONOSTIARANTZ:** EGUNERO. 8,50; 14,50. **JAIEGUNAK.** 8,50; 14,50; 19,30.



Sexu-osasuna

OMS(B)-ek («Organización Mundial de la Salud» delakoak), dioenez, «egungo ezagera multzo hazkorak, adierazten du, giza sexualitatearen arazoak, denbora luzean onartu den baina askoz garrantzitsu eta sakonagoak direla kultura askoren gizabanakoen ongitasun eta osasunari dagokionez, eta maila honetan dagoen ezjakintasunak osasun eta bizitza kalitatearen arazo desberdinekin duela harreman estu bat».

Ez dago eztabaidatzerik, sexualitateak gero eta garrantzi haundiagoa hartzen ari dela ez egite kultural bat bezala soilik, baizik eta osasuneko ere. Maila honetan zenbait inizatiba municipal hartzen ari dira, desinformazio, tab eta populazio sektore haundietan suertatzen diren faktore negatiboak erantzun bat eman nahi izanez. Inizatiba hauen artean azpimarra genitzake Barcelonan, Valladoliden, Sevillan eta Avilesen, ematen ari diren sexu informazio eta orientaziorako dauden zerbitzuak eta hurbilago, Tolosan, Hondarribian, Oreretan, eta Donostian daudenak.

«Zerraila»

Ikasleen bizimodua

Nork dio ikasleen bizimodua erraza eta lasaia denik? Ez dugu uste hau, inongo ikaslek esango lukeenik eta gutxiago oraindik ebaluaketetako examinetan.

Mundu honetan, zerbait izateko, geroz eta gehiago ikastea eskatzen da. Hau oso nabarmena da, zeren gure gurasoei entzunda, denok dakigu beraiek, lan egiteko, ez zutela gaur egungo ikasketarik burutzen, ez eta arratsalde guztian ikasten aritu ere; beraiek ez zioten gaur egun adinako garrantziarik ematen honi, baizik eta nahikoa zuten beraien etxeko lanetaz arduratzea, eta hala ere, ongi moldatu dira bizitza honetan, gehienak gure adinarako lanean bait zeuden.

Eta kexatu egiten dira! Gehienek ez

ikastearen pena dutela adieraziz! Baina zertaz kexatu behar dira? Beraien herriaren kokapena jakitearekin, lan on eta finko bat zuten eta alperrenak ere moldatzen ziren lana aurkitzeko. Zergatik aldatu ote da mundua horrenbeste?

Orain, zerbait izan nahi baduzu, zure bizi erdia ikasi eta ikasi pasatu beharra daukazu eta, noski, jaio zarenetik burua liburu artean ez baduzu eta nota txarrak ateratzen badituzu, kalegarbitzaile bezala ere ezin aritu!

Guzti honi ezin bizkarri eman eta ezta gurasoen patrikatik bizi ere, denok bait dakigu dena zein garestia den eta, logikoa denez, ez da poltsiko batetik denetarako heltzen.

Noizbait iritsi al zarete pentsatzera ikasketarik gabe nolakoa izango litzatekeen mundua? Ze lasaitasuna hura, ezta? Baina, seguru, beste zerbait izango litzateke orduan ere, okerragoa agian, nahiz horrelakorik izatea oso zaila ikusten dugun.

Irakasleek ere, ez ote dute ulertzen gure zorigaitza? Ze, badaude batzuk, lagundu beharrean, beraien «txapa» bota eta ondoren «adio eta hor konpon!».

Hala ere, ez samintzea eta aurrera jarraitzea da biderik hoberena, zeren horrelako aurrerakuntzetan jarraitzen badu denak, ene!, gure seme-alabak! Erruki ditugu!

**Oskarbi eta Aitziber
(Oianguren B.I. I.E.A.)**

Komunikazio Zuzendariari

Jaun Agurgarria:

Atzo (90-XII-9) azkeneko aldiz, Usurbe mendiko errepikagailuak huts eginda, ilunabarrean beste behin ere ETB1a ikusi ezinik gelditu ginen Goierri aldean.

Atzokoa ordea, bat gehiago baino ez da izan eta Zuzendaritza horretan lehenbailehen konpontzeko hitza eman didatenez, sinesten dut konponduko dela, baina arazoa ez da hor bukatzen.

Ez dakigu zergatik den, baina ETB1a, lehenengo haize-bolada, tximista, erauntsi edo edozerekin galdu egiten dugu eta bere alboan dagoen ETB2ak adibidez askoz ere hobeto irauten du. Zer esanik ez TV1 eta TV2k. Bestalde, ETB1a, ETB2 eta TV2ren artean otartekoan bezala sartuta dago maiztasunen eremuan eta bere kalitatea eskasa gertatzen da beste kate horiekiko, batez ere, zeharkako seinalea edo bigarren seinalea denean (beste nonbaitetik ETB1a iritsi eta errepikatutakoa, erreportaietan, etab.). Zuzeneko seinalea denean (estudiokoa) hobea da halere.

Aspertuta eta nazkatuta gaude Beasaingo eta Goierriko euskaldunok, ETB1ak duen beste kateekiko eskasiaz eta gutxieenez ere besteen mailako (ETB2ren mailakoa) ikusmena eskatzeko garaia dela uste dut (Berdina ezezik hobea ere behar genukeen arren eta erdal azpigituluak nahiz erdal publizitatea kenduta, euskara hutsezkoa bakarrik sartuz). Bestalde, Euskadi Irratiko 1. igorleari ere, oso erraz joaten zaizkio seinaleak edozein eguraldi-arazorekin eta joaten ez zaizkionean ere entzuteko desatsegina bihurtzen da zarata arraroekin. Euskadi 2 (erdalduna) askoz ere ozenago eta hobeto entzuten da eta hemen ere Telebistaren kasuan bezala, azpiproduktu bat eskaintzen zaigula uste dugu. Garaia da beraz, 1. katea eta igorle horiek behar diren tresnekin hornitu, beste igorle eta kateetatik behar adina berezi eta apartatu uhin-maiztasunetan eta euskarazko hitzak eta euskal doinuak garbi eta ozen jasotzeko.

Euskaldunok hemen, bigarren mailako zerbitzua jasotzen ari gara eta bene-benetan nazkatuta gaude. Beraz, seinaleak ondo berezi, uhin-maiztasunen eremurik onenak euskarazkoentzat hartu eta euskaldunon komunikazioa behingoz behar den bezala jartzea eskatzen dizut.

Bienbitarte, har ezazu nire agur itzaltsua.

Andoni Sarriegi

GOIERRITARRA etxean jaso nahi dut NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA..... TLF.....

Aldizkaria ohiz jasotzen duzun lekuetan utzi ala Ordiziako 124 Posta kutxara bidali

DOHAIN GOIERRIKO ZENBAIT UDALEI ESKER





LANCIA ETXE - AZPI

- Goierriko banatzaile ofiziala
- Instalakuntza modernoak
- Berebil berriak eta okasiokoak



Tfnoak: 88 10 61 - 88 29 46

20216 ORMAIZTEGI



Liernia
Tfno 80 16 99

20214 MUTILOA



Teléf. 88 10 19

ATAUN - San Martin (Gipuzkoa)

OLASO TABERNA

Biltoki atsegina

Guadalupe auzoa. LEGORRETA

BARANDIARAN

Altzariak eta
dekorazioa

ORDIZIA Urdaneta kalea
Tfna: 88 10 97



ARRIKUTZ, TAILERRAK

AGENTZI OFIZIALA

Alfa Romeo



Nafarroa Etorbidea, 53

Tfnoa: 88 52 00

20200 BEASAIN

Gerrarik ez, ezta...!!!

Galdera: Zer iruditzen zaizu Golko Pertsiarreko gerra?



Ion Olano. Beasaindarra.
17 urte. Okina.!


Nire ustez, Golfokoa pasada bat da. Alde batetik Hussein-ek gaizki egin du Kuwait okupatuz eta bestetik Bush eta indar aliatuek okerrago egin dute gerrari hasiera emanez.

Gainera, hemen argi ikusi dena da Nazio Batuen Erakundea, (ONU), Estatu Batuen marioneta bat dela eta haiek nahi dutena egingo duela. Yankiek Panama, Nicaragua, Vietnam eta beste lurralde asko inbaditu dituzte beren interes ekonomikoak mantentzeko, eta sekula ez dute "zigorrik" jaso. Baina Irak-ek Kuwait hartzerakoan beraien petrolioak ikutu dute eta horregatik daude orain borrokan. Lehen esaten zuten gerrak gutxi iraungo zuela, eta orain berriz, luzerako dihoala diote. Horrezaz gain han euskal gazteak daude gerrauntzitan soldaduska egiten ejerzitoak bahituta eta gerrate horretan jende asko hil behar da petrolioarengatik, amerikanoen ekonomia mantentzeagatik. Txarki!



Patxi Telleria. 33 urte,
beasaindarra, tabernaria.


Gerraren aurka nago, horrek suposatzen duen erokeriagatik. Baina arazo honetan interes ekonomikoak daude erditik. EEBB-ek berriro nahi dutena egin dute NBE-n beraien inperialismoarekin jarraituz. Kuwait-en EEBB-en, Frantziaren eta Ingalaterraren interes asko zeuden eta horregatik hasi dute gerra Irak-en aurka. Petrolioak dago guzti honen atzean. Lotagarria da baita ere NBE-ren izenean gerra egitea, NBE berak Israeli agindu bait zion Palestina libre uzteko: ez zuen bete eta ez da ezer pasatu. Palestinan ez dagoelako beren interes ekonomikorik. Hoberena irtenbide paketsu bat izango litzateke.



Joseba Telleria. 27 urte,
segurarra, AEK-ko irakasle.

Txasko bat izan da. Ez nuen uste gerra hau hasiko zenik. Apostu bat baino gehiago galdu ditut. Gatazkari dagokionez, bere alderik kezkarrienetako bat informazioarena dela uste dut. Jasotzen den guztia egizat hartzeko ohitura da hemengo gaitz handienetakoa. Honen adibideetako bat besterik ez da mundu guztiak

jakin badakiela Irak-ek Kuwait erasotu zuela, dexente gutxiagok dakitenean palestinarrek juduen aldetik sufritzen dituzten eraso berri. Edota iparramerika-rrak, milaka eta milaka zibil hiltzen dituzten bitartean, munduaren salbatzaile bezala kontsideratuak izatea.



«Peru» Sanzo, 26 urte, ordiziarra,
bideo-klubeko enplegatua.

Basatikeria bat iruditzen zait Golkoko gerra. Ez dakit beraiek, gerran sartu direnak alegia, zertan ari diren ba ote daketen. Eskuetatik joan lekietan, gerra batean zer gerta litekeen ez bait daiteke jakin.

Horrekin --presakako garaipen militar zapaltzaile batez--, zonaldeko arazoak konpontzea pretenditzen bazuten ere, lortuko duten gauza bakarra gauza orain dela urte batzuk konponduta egon beharke lukeena luzeagotzea izango da. Nahiz eta Hussein-ek aitzakiak erabili Kuwait okupatzeko, hor daude era berean Palestina eta Kurdistango okupazioak. Honekin probatu dena NBE-ren eta Kontseilu Europearren inoperantzia eta sinbolikotasuna da. Azken batean ezer gutxitarako balio dutela.



SUSKRIBITU ZAITEZ!

**IRAKURRI
ETA ZABALTZAZU
GOIERRRITARRA**

**GAUR EDO BIHARKO
KOLABORATZAILEEI:
GURE TELEFONOA, 889612.**

-Sekulako sukarrak sortzen ditu hormigoiak. Garai batean apaiz desterratu guztiak Aramara bidaltzen zituzten, arima gutxien zuen herria izaki. Hildako gutxienak ere Araman. Baina besteak baino gutxiago nork nahi du izan? 100 (ehun) milioiko frontoia egiteko asmoak omen daude Araman. Azkenean, inork gutxik erabiltzen dituen polideportiboez (Beasain-Ordiziako kasuak...) hobeto gaude.

-Idiazabalgo gaztari ene boikota» titulupean karta bat azaldu zen «Euskaldunon Egunkaria»n duela ez hainbeste. «Quesos Aldanondo»-ren «euskaraz egundo ere eskainia ikusi gabeko gazta apaintzen duen paper-eranskailuan, ohizko erderazko perlekin batean Oveki hitz xelebrea» aurkitu zuen Hendaiaiko Mikelek. Lotsagarria deritzo «zein eskualdetik (Goierritik) hel-tzen zaigun ikusirik». Okerrena ez duk hori Mikel: Gazta hori ez duk Idiazabalen egina... Castillan baizik!

-Umezurtz utzi gaituzte. Lehen Goierriko Zine-Klubak egin zuen porrot. Orain, Beasaingo zinema daukagu piska baterako itxirik. «Portugal» geratzen zaigu eta eskerrak!

-Lipuak (prozesionariak) negu-partean eragiten dituen kalteak zenbaezinak ohi dira. Pinudiak eta harrapatzen duen guztia erre, baita arrisku latzak pertsonari ukitzen badio. Lazkaoko San Jose auzoan gertatu da: etxeetara eta guzti sartu da, pinudiez inguraturik bait dago. Etxeren bat salezinean legoke, hori dela eta.

-Irakurri Kartak sailean agertzen den A. Sarriegiren salaketa. Erantzun bat izan du Eusko Jauriaritzatik, ez dakigu halabeharrez edo parean tokatu delako. ETB-ren instalazioetan hobekuntza teknikoak egiteko asmo eta proposamenak ba omen dira. Ea zertan gelditzen diren.

-TVE1k interferitu egiten du ETB1 hemen. Potentzia arazoak tarteko noski. «Retevisión» ente publikoa (Canal-plus, Antena3, Tele5, e.a.) «zerbitzu berri bat eskaintzera» datorkigu. Sinplekerian eroriz nahi bada, baina beste eraso bat euskararen kontra. Entzun dugunez arin samar baimentzen omen dituzte inguruko udalek (Beasain, e.a.) beren antena ezartzeak. Hamaika ikusteko jaio ginen!

-Beasaingo Usurbe mendian, gurutzearen ondoan, «Retevisión»i Estazio Igorgailua eraikitzeke obra-lizentzia eman zaio. Erauskin auzoko Arteta baserriko Juan Joxe lur-sailaren nagusiaren baimenik eskatu gabe eta traturik burutu gabe lanean hasi, txabola berria egin eta orain gaia auzitegian egon behar du. Ez da gutxigorako!

-Hau kaleratzen denerako, Jon Arano (Mikel Aramendi) aldizkari honen koordinatzailearen «Malezia Sorta» poema liburu trinkoa argitaratua behar du izan «Susa» argitaletxe donostiarren eskutik.

-Eguberritan Lazkaoko komentuan aritu dira. Liburuen liburu (Biblia) euskaratzen ari dira katoliko eta protestanteak. Euskaldun fededun nahiz fedegabeentzat.

-Goierritarrako erredakzioke beste lankidea, Xabier Narbarte bertsolari gaztea, konbikzioz eta gerra-hotsak baino lehentxeagotik dugu intsumiso. Soldaduskan egon beharko zuen bestela, auskalo non. Gero gerokoak, libre oraingoz.

-Iñaki Erguin, Beasaingo Alkate izateaz gain, Zarautzko «Ca-bledis» elkarteko zuzendari dugu. «Egunkaria»ri esan zionez, kable bidezko telebista zabaltzen ari da Euskal Herrian (Lego-rretan egin da zerbait), lurrazpitik kableatzen dira etxebizitzak eta ekologikoagoa izateaz aparte, abantaila asko eskaintzen omen ditu.

-Ahoz aho dabilena... baina inortxok ere esaten ez duena. Herri-oren zaldiak hankarik ez, baina lasterka korritzen du. Goierriko kaleetatik (b)ere(B) badabil IHES-a (SIDA), bai eta hepatitis kutsagarri askoa, zenbait kasu gertatu direla ja. Beldur ino-zorik gabe, neurriak hartzeko ordua iritsi zaigu.



Goierriko zabortegiaren sarrera

Zer gertatzen da...? ...Zabortegi piratekin?

Hara joan, bestera joan zabortegi piratak nonahi. «Tamalgarria eta nazkagarria benetan! Eta hau gutxi balitz Berostegiko zabortegiaren inguruan, hara non aurkitzen den best zabortegi txikiago bat ere», zioten iazko azaroan Itsasondoko «Kantillape»koek. «Bainan... hona nork botatzen dituzaborrak? Beste zabortegi inkontrolatu bat sortzen ari al da hemen?». Gaintzan, Araman, Goierriko Eskolako bidean, Olaberrialdean eta non ez da zabortegi piratarik? Laiotz guztiak kutsatu dizkigute zerrikeriekin. Asto gorotza geurontzat.

Beasaingo zabortegia egina dagoela, Goierriko kakak jasotzeko prest legoke. Baina kolektorea dela eta ez dela ez da martxan jartzen, isurkin guztiak, ur zikin eta kutsatu guztiak orain bezala ibaira joango bait lirateke. Itsasondoko Udalerriak Martxoaren 1a tope, Berostegi eskualdekoa itxiko du. Hondakinen usaina eta ke arteko egunak, lardaskeriak noiz bukatuko zain gaude.

Irakurri dugu...

Omenaldiko azken bertsoak Goiburuk

Gure omenaldira/ etxetik irtenik/ ez pentsa jende gutxi/ bildu zeratenik/ neu hain gutxi izana/ ez dut beste penik/ egun hontara arte/ ez nuen uste nik/ bertso munduan hainbat/ maite ginuztenik/ (Bis)

Lasaitzeko harturik/ bi erremedio/ etorri naiz egun hau degula medio/ Hala ere Goiburuk/ gaur egia dio/ hain gertuan ez ditu/ izan oraindik/ poza eta negarra/ elkarrengandio./ (Bis)(...)

Iraolak

Horra entzule guzti guztioi/ agurra lehendabiziko/ gaurko egun hau gogoangarri/ nere denbora guztiko/ kezka bat daukat zazta ta zazta/ hain eztenkada biziko/ omendu behar ta omendu gabe/ norbait ez al zan utziko/ nik honenbeste merezi badut/ nork ez zuen mereziko/.

Omenaldirik omenaldi hor/ areto eta plazikan/ zeinen urduri ibili naizen/ nork ez du hartu trazikan/ etorri baina etxean egon/ nahiago nuen kasikan/ baina munduan arantzik gabe/ ez baitago arrosikan/ rato txar batzuk pasatu ditut/ baina orain nago pozikan./ (...)

Egin, 1991-I-14.

CAF-erako lana

Beasaingo CAF enpresak FEVEK lehiaketara atera duen ibilbide motzeko hamasei trenen eraikuntzaren eskaintza bereganatu du, 4.000 mila milioi pezeta jasoko dituela ordainetan. Gobernu espainiarrak 17.550 milioi pezetako dirulaguntza eman dio FEVEri ibilbide Motzeko garraio Plangintza gauzatzeko. (...) CAF-en tren unitate berri hauek Asturias-era eramango dituzte, bertan trenbide elektrifikazio lanak amaitzeaz daudelarik.

«Egunkaria»n, bere egunean.

**TROSKAETA
TABERNA**

* BAZKARI ETA AFARIAK. 881037 ATAUN

Polikiroldegia garesti

Ordiziar kirolzale neska talde bat gara. Agiri honen bidez (udal?) polikiroldegia- ren instalakuntzen erabilerak suposatzen duen gehiegizko prezioetatik protestatu nahi dugu. Urte asko generaman polikiroldegi baten zain eta orain, badugunean, ezinezkoa zaigu joatea, ezarri zaion gehiegizko sarrera dela eta. Kirola sustatzeko ez baino zenbait jenderen probetxu ekonomikorako egin ote den ere sumoa dugu. Honen bidez, kirolzale guztiei proposatzen dieguna zera da, «polinegozio»ra ez daitezela joan, sarre- rak merketu eta mundu guztiaren eskura egon daitezen arte.

Diario Vasco, 1991-I-23.

Euskaldunon Egunkaria

(...)Honela, aspaldidanik euskaldunok amets egiten genuen euskarazko egunkaria, kalera irtetzen hasi zen huts egin gabe. Gertaera honek duen garrantziaz, agian ez gara konturatu, ustekabea, publizitate eta zalaparta handirik gabe kaleratu delako, baina euskararentzat, hobeto esan euskaldunontzat izugarritako esanahia du, zeren orain arte, nahi eta nahiez, erdaraz jakin behar izaten genituen eguneroko berriak. Hemendik aurrera euskaraz jakin ahal izango ditugu. Benetan, urrats edo aurrerapen handia! (...)

Proiektu edo egitasmoa kaleratu zenean, aipatu ziren baldintzak edo markatu ziren helburuak betetzen ari dira.

1.- Egunkaria, euskaldun guztiei, eritzi ezberdinetako jendeari zabalduz agertzen da. Joera politiko ezberdinetako jen-



deak bere eritziak idatzi ditu. Egunero agertzen dira ikuspegi ezberdinetako eritziak.

2.- Euskal-Herri osoko (zazpi probintziak) berriei lehentasuna ematen diona. Honen froga, azken hilabete honetan urte luzeetan baino Ifar Aldeko informazio gehiago jakin izan dugula.

(...) 4.- Hori guztia euskara errezean ematea ere lortu dela ezin ukatu. Orain arteko egunkari, aldizkariekin alderatuz, nabarmena da zein irakurterreza den Egunkaria.

*Itsasondoko "Kantillape",
91ko urtarrila.*

Beasain bere Alkatearen hitzetan

Agian, hemendik urte batzutarako dugu apusturik handiena komunikazio gune bilakatuko denean Beasain errepide nagusiaren desboblamendua eta Beasain-Durango autobidearekin bat egin dadi- nean, kontutan harturik gainera RENFEk aurreikusirik duen egitasmoak tren gel- tokiarengan izango duen errelantzamen- dua. Guzti honen aurrean, herria zerbitzu berriei hornitu behar dugu, hotelak eta barne bide- azpiegitura hobetu. (...) Na- baria da egoitzen falta gure herrian. Arazo honentzat soluziobidea Usurbe zinema- ren jabetzeari esker etorriko da, oraindik bi urteetara 450 lagunentzat lekua izango baitu".

Iñaki Erguin, Egin, 1991-I-29.

A ze flaxa: Serorarentzat!



MUEBLES
Ordizia
HALTZARIAK

Tfnoak: 88 23 50
 88 23 54
 88 11 92
 88 53 50

46, Posta Kutxa
 ORDIZIA

E X E
ALA I

JATETXEA

885255

ALTZAGA
 GASTEIZ
 Donostia
 Iltasondo
 Ordizia

H E G O A
TABERNA

Goierri Kalea, 12 (Atzekaldea) **ORDIZIA**

TXALUPA
ERRETEGIA

Arrain, marisko eta okelak parrilan

P-21 ZENTRU KOMERTZIALA Tfnoa: 88 84 07 **ORDIZIA**

BEASAINGO
TABERNARIEN
ELKARTEA

H G

HARRIA GRESAK

BERRIKUNTZA OSOAK

Nafarroa Etorbidea, 45
 Tfnoa. 88 54 66 **20200 BEASAIN**

Bilore

VW Audi

Autowag, s.a.

Errepide Nagusia, N-1. 419 Kma.
 Tfnoak: 88 82 66 - 88 82 54 **BEASAIN**

**Kirol jantzieta
 espezialistak**

kimi kirolak

Domingo Unanue Enparantza 5
 Telf.: 88 85 18 **20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)**

OPEL GM

iRVROK S. L.
 ZERBITZU OFIZIALA

N-1 Madrid-Irun Errepidea
 Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54
OLABERRIA

URTE T'ERDI PASATXO DARAMATZA IREKIRIK ORMAIZTEGIN

Zumalakarregi Museoa: HISTORIA errepasatzeko aproposa

Jatorriz XVIII mendekoa eta gaur egun Zumalakarregi Museoa den Iriarte-Erdikoa baserriaz jabetu zen bere garaiko Gipuzkoako Diputazio Probintziala 1.938.aren ondorean. 1.949.ean eman zitzaion Joakin Irizar arkitektuari etxearen birrabiltzeko enkargua eta, urte berean bukatuko zen obren zuzendaritza ere.

Garaiko agiri batek dioen bezala, eraikuntzaren antigoaleko arkitektura errespetatzen saiatu zen proiektua. Eta zer esanik ez, igeltsaritza eta arotzeria ñabarduretan hasieran ziren tipo eta modeluen kalko izaten. Egin nahi izan zena zen Generalaren garaiko giroa oroitaraziko zuen etxe- museo, harekin gutxi edo asko erlazionaturik zeudekeen haltzari eta gauzez baliaturik.

Gerora, 1969.ean Monumentu Historiko-Artistiko Probintziala delakotzat deklaratu izan zen. 1985.ean, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere Kultur Departamenduaren museo-politika medio, edifizioa Tomas Zumalakarregi Generalari eta bere garaia eskainitako Museoan bihurtzeko gestioei ekin zion. Erreforma proiektuaren abiapuntua Irizarrek proiektaturiko giroa eta distribuzio generala eustea izan zen, pieza oso baten koherentzia guztiak bait zituen.

Lote batean lortu ziren Zumalakarregiren objektuak. Halaber, 400 inguruko dokumentu bilduma, zeinen artean Tomas Zumalakarregi beraren kartak dauden, Pankrazia Ollo bere emaztearenak, bere anaia zen Migel Antonio diputatu liberalarenak, bere koinatuena, alabena, Carlos Maria Isidro de Borbón



Zumalakarregi museoa gaur egun


--Pretendiente--renak eta garaiko beste zenbait pertsonai inportanteenak.

Museoaren ardatz den lorpen honen inguruan, lan egin beharra izan zen konplementu egoki bat aurkitzearen. Lau zatitan bana ditzazkegu: I Karlistadarekin zerikusia duten objektuak; Ikonografia; Garaiko dokumentazioa, inprimatua nahiz eskuz idatzitakoa; karlisten Generalaren eta bere testu- inguru politiko-sozialari buruz datu interesgarriak dituzten artxiboen informazioa.

Jabetze garrantzitsuak

Karlisten I Gerratearekin zer ikusirik duten objektuak bilatzea ez da lan samurra izan museoarentzat, geroztikako izaera zibileko istilu eta iskanbila ugari jasan behar izan baititu gure Herriak eta hauekako gauzaki edo objektu asko eta asko txikituak eta gehienetan sakabanatuak izan baitira gerren ondoko migrazioetan.

Lortzen errazagoa izan da Ikonografia; urte batzutan argia ikusi duten hiru ar-



Ikuspegi bat

gazki-album lortu izan ziren, zorionez. Hiruretako bi ingelesak. Oso esanguratsuak suertatu omen dira gainera, geure herriaren bi ikuspegi kontrajarrien islada izaki. Bata erromantikoa eta idealista (Crocker and Baker-a) eta errealista eta kritikoa bestea (Sketchs of the Civil War-a), bi bidaiari ingelesen prismatik gerrako inpresioak erakusten dizkigutenak, biak ere. Hirugarren albuma "Las tropas carlistas del Ejército Norte" delako izenburuduna, bere alorrean osatuena.

Museoaren dokumentazio osagarria modura, bada beste zenbait jabetza. Garrantzitsuena Melchor Garcia Moreno delakoaren Bilduma; karlistismoaren historigile hau karlisten Familia Errealaren gutun bilduma eta interes handiko dokumentazioa biltzen ari den urteetan. Artxiboetako buruzko informazioari dagokionez, berau izan da kapitularik bihurrituena, izan ere banandurik baitago Euskal Herriko artxiboetan ez ezik Estatukoetan eta beste zenbait herrialdeetan, nazioarteko jautzia egin zuen konfliktua izaki.

«Historia Ikasketak»

Funtzionamenduan urtebete eraman ondoren, 4.200 lagunek bisitatu du Museoan, duela hilabete batzutatik honuntza bisitarien perfila aldatu delarik, hots, lehen partikularra gailentzen bazen, taldekideak bikoiztu dira orain. Ba omen da informazio gurutzaketa bat eskolekin. Bai eta ere dokumentazio zehatza irakasle-ikasleentzat markaturiko ibilbideak osatzen dutenak: "Baserritik museora", OHOk 6. eta 7.ekoentzako ta "Zumalakarregi eta I Gerla Karlista", 8., L.H. eta UBIko ikasleei zuzendua.


Era berean, "Estudios Históricos" dertizan zientzi argitalpena ateratzen du duela urtebetez gero museoak, zeina aurrera eraman den ekintza ihardueren ondorioa den eta Erregimen Antigua, Euskal Herrian izaniko I Karlistada eta bere arrastoen inguruko xehetasunei buruzko ikerketak potentziaztera zuzendua dagoena.

Museoaren erantzuleak buru-belarri sarturik, saiatzen dira publikazio honen helburua betetzen: ikertzaileek izan dezatela beren aportazioak ezagutzera emateko plataforma, museoaren dokumentazio espezialdua etengabe aberasten diharduten bitartean.

Egokitzailea: Karrozeroa

Bisita ordutegia:

Asteartea, 15.00etatik 19.00etara; asteazken, ostegun eta ostirala, 10.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 19.00etara; larunbata, 10.00etatik 14.00etara eta 15.30etatik 18.30ra. Astelehen eta igandetan ixten du. Telefonoa: 889900



Baserritik museora

Gure General handia

BODEGON GOIERRI JATETXEA

Tlf. 88 00 00

Kale Nagusia, 20

BEASAIN

MIAMI TABERNA

PINTXO HOTZ ETA BEROETAN ESPEZIALDUAK

Tfnoa: 88 00 15

ORDIZIA

MILA KASU DITUZTE BEREN ERREPERTORIOAN.
MAHAIRA GONBIDATUAK HAMAHA ALDIZ: GRAZIOSOAK IZAN!

Gastesitarrak: Goierrin sortu diren txistoso apartenak




Betidanik izan dugu Gastesi legorretar klan zeblebrearen- edo aditzera. Ikusiko duzuenez, numero-uno eta fuera-de-serie haiek!

Aurrena Lorentxo Gastesi elkarrizketatu nahi izan genuen, Benidortik bueltan zela bere tximuarekin. Baina hark zioenez aitak zekizkien garai bateko halamoduzko kontuen berri. Honengana ere jo dugu bada eta koinata atera telefonora. Florentino bezain aparta izan Anastasio anaia. Florentino-ri dei, zita egin eta nola elkar ezagutuko genuen galdetutakoan borlakiko txano urdin batekin izango zela Ordiziako ferian. Baita aurkitu ere berehala!

Antezedenteak

Hitz jario dexentekoa aurkitu dugu Florentino Gastesi, "Narbaiza bigarren, esan behar bada", inorako lotsarik gabe. Ez da legorretarra jaiotzez, Tolosa-Ibarran jaio eta zortzi urterekin etorria baitzik. «Jaio eta bi hilabetekin, gure aita torneroa bait zen, Tolosara. Tolosatik Zumaiara. Handik, zortzirekin, hona. Hemen berri, Etxezarreta papeleran. Abisua eman, etortzeko. Tratoa egin zien: argia eta denak libre, ikatza...». Esaten omen zion semeak aitari, «Jo, honera? Han sikiera lapa edo zerbait bilatzen genuen. Hemen zer bilatu behar du gu?». Bada, gaur arte.

Hirurogeitamabi urte ditu Florentinok, datorren martxoan, bizi bada, hamairu. Bizi guztia Etxezarreta papertegian egin du lan, hamalauetarik sartu eta jubilatuta arte hirurogeitabostekin. Medikuek esan ziotenez «alkohola fuera!, ura edan gogotik, amorioa egin ahal den gehiena eta humorerik ez dadila falta». Txarra baita, zahartu egiten bait da bat eta txartu gainera. Oseake semeen arazoak-eta ez hartu, ahaztu baizik. Txintxo betetzen ditu



Florentino eta Lorentxo, aita semeak postuan daude...

gastesitar honek aginduak, badaezpada ere geuri ere kontseilu horiek ematen dizkigu, «osasunari heldu eta ez tabakoari!». Bera ere probatutakoa izan!

GOIERRITARRA.- Humorea aipatu, humorea gertatu. Horren falta-rik ez du gatesitarrak. Zuen juergak, humoreak, amoreak, nondik datozkizue?

GASTESITARRA.- Gure anai zena, Jexux Mari, goizean barau huen ona; edatearekin txartzen huen. Edan gabe, igoal denda kaxkar hortara sartuko huen. Ezagutu zein amona zen bertan -- umeen abotsa, emakumearena, boza lodia, denak egiten bait zituen hark--, eta enkargutara dihoan umearen papera eginez oihiu egingo zioan sukaldean eltzea erreparatzen ari zen etxekoandreari: «Abemaria! Amak esan dit kilo-patata eta kilo-azukre emateko!». «Itxoin piska bat, segitun joango naiz da!». Andrea badatorrenean, gurea mostradore aurrean jeitsi eta atsoak ikusten ez duela geratu. «Nora joan ote zait neri ume hori? Aldegin dit!». Hurrena beste abots bat jarritz adarra joko zion eta azkenean gizon boza jarritz agertuko zen baxoerdi eska, amonaren kejak entzuten

zituela. Antzeman ere ez! Boza kanbiantzen hura?! Tanpronto egingo zuen neska-rena, tanpronto,... Habila!

Lazkaoko muga-mugan hil omen zen Ataungo festa-bidean, kurba arriskutsu hartan (hil zirenak han, gero ere!), istri-puz vespa baten atzekaldean zihoaztela. Martxoaren 31 batean, Plonttiñoren urtebetetze egunean, orain dela urte batzuk bai.

Markatik fuerakoak!

Baina tradizioa lehendik datorkie. «Beste kasu bat zen, tipoa!, egiten zituen, osaba zena Julian. Hark zeukan astelehen-arratsaldero Tolosako ferira joaten zen koadrila. Legorretarrak ere bai, sei-zazpi lagun, beren meriendarekin, kazuela bat jaten zuten "Zeru-txiki"n edo beste nonbaiten jarrita. Hori zen "Tuertonea" esaten genion beste taberna bat, Ermentari kalean dago hori Tolosan --ilobak edo ez dakit zeinek segitzen duten han: Villanueva, artajonarrak--. Begi bakarra zen nagusi hori eta begi postizoa ibiltzen zuen. Askotan apalean uzten zuen, ttak, nazka ematen baitzion. Gure osabak jakin non uzten zuen eta hartu kristalezko begia, kazuela bila joan eta

ekartzen dute; kazuelatik batek hartu eta besteak hartu --bizi da haietako bakar bat, Martin Ugarte 85 urtekin--, mekaueñ!!!, begi bat azaldu kazolan nagusia berari! Kulpantea: gure Julian. Parrez leher egin omen zuten!».

Beren tarretakoren bat ez al zen, gal-detzen diogu Gastesiri, hildako kaja probatu eta hurrengoan hil zena, kolporako gordetzen dugula, ziur ez dakigunez, aditutako astakeria haundiagoren bat.

“Gure anai zena. Jexuxmari, gizagajoa, hari pasa zitzaioan. Motoan akzidentatutakoa. Hildako kajatan sartu huen eta handik gutxira paradoera! Hura eginda zegok, barrika batean arratoiak harrapatu eta akatu: zortzi arratoi, etxea adinakoak. Arratoi guztiak isatsetik lotu dizkik, txintxiliku “koilarra” lepotik behera, sartu duk Patxikoneko tabernan: hura eskandaloa! Ume guztiak arrapaladan, anda-demonios!!!”.

G.- Esan liteke, beraz, gastesitarak lumero-uno izan direla hemen guzti hauetan? Beste anairen bat baduzu ateraldietakoa, ezta?

G.- Ikaragarriak haiek. Gure anai Anastasio, Aristrainen egiten du, biok bizi gara; gerran Guadalajarako frentean negocia jaiotakoa. Abisua eman didate nola jaio den eta aitaponteko, nere partez, nonbait osaba jarri dutela. Hura eginda dago --Ordiziko festetan, Txanketaneke karnizeria dagoen plaza txiki hortan--, Txanketak taberna eduki eta zer egin du honek?: kontratatu soinu-jotzeko, “jazz-ban”-a jotzeko, Baliarraingo Joxe Mari eta gure anai hori; aurreragoko postuan, beste taberna baten babesean, orkestina bat: denak haruntza dantza egitera, hala jotzen omen zuten haiek! Inor ez zitzaizela etorriko eta zer egin behar zuten gureek (zer irabaziko ziaten ba?: Txanketak huskeriko jorñala eta egun guztiko jan-edana); “*Lasai, laster etorriko dituk denak hona*” esanez hasi izango zaigu gure anai hori, hartu aparatua eta filigranak egiten, filin-kulun-eta- kalan, kriston ixtoriak, aiba-de-dio! Ahokin bezala sudur edo instrumentu hotsak, txistea gero hura! Orkestinaneke dena hutsik geratu eta denak Txanketarena, monigotadak ikustera dantzatzea baino gehiago. Hori eginda zegok hura.

G.- Esan liteke, gaurkoaren aldean, hobeto hartzen zela humorezko gau-

zok, astakeritxo batzu gora-behera, premia ere halakoa izango zelako?

G.- Buenooo!

Osaba Julian mutilzahar hil zen baina neskak, nahi zituen guztiak egin eta jartzen zituen txorauta. Akordatzan nauk. Zera, Atauna hiltzera joan zen bezperan, siesta egin zazpiak arte, han ginen --gure bi alabak, andrea eta biok--, Arantxa tabernan, do-zenardi bat neska bazituen atzetik, baina gogorik ez zuen eta astoaren



Irudi bat mila hitz baino hobea

ostiko keinua bezala egin zien. Gogorik ez zuenean, ezta musu eman balie ere. Adios, Iñaxirenea merienda latza egitea. Papelerako zuzendari zen Monfort-en partetik ezkontza bazkaritera ere gonbidautu egoten huen, bromak egiteko. Grazia egiten zioan- eta.

Grazioso izan grazian erori!

Bera ere aparatu ona ez zela izango, esaten diot mutur aurrera. Aita Anastasio zena ere igoala omen zen. Mahai azpian sartu eta katuaren miauak eginda katua zelakoan denak. Hark ikeragarriak egin eta istorioak omen daude harenak. Anastasio anaiak, berriz, «katuarena egin, leihoa irekirik tokatu kasualitatez eta polizi-zakurra erotu beharrean, sartu eta atera, katua ikusten ez zuela. Erotu huen!».

Artixtak izateko poko-miedo, beste ikasketabatzu izan balituzte. Txarragoak aterako ziren telebistan. «Txarlot-ena, paiasoarena egiteko ikeragarri balioko zuten», dio konbentziturik legorretarrak. Bai jauna. Baina Gastesi hau ez da gogoratzen berak egindako haundiren batetaz. «Piska bat beldurtixeago ninduan ni. Horiek atrebituagoak. Joxe eta Jexux Mari anaiak beti elkarrekin.

G.- Zuek bezala banaka batzu, hala? Zure ondorengoak ere badakarkie berezkoa.

G.- Orduan eta orain, bazeudek ateratzen direnak, berez dutenak, balio dutenak antzerki eta zinerako. Juan Joxek esaten dizkik grazi askorik, Lontxok ere badik, Benidorren ibili denak. Orain hemendik zebilek, tximuarekin, jorñala ateratzeko. Ez zekiat zer aterako duen.

Etxeko onenen kontuak

Lorentxo Gastesi, saga familiarreko gazteena, tximu batekin dabil hortik eta hemendik, hala nahi duenari monoarekin erretratatzeko. Bizi modua atera du behintzat! «Santalutzi egunean Zumarragara dihoala. Horrekin ibili duk derri- gor urte batzutan eta atera ere egin dik janak eta pentsioak pagatzeko. Ez duk gutxi! Korritu ere egin dik, Inglaterraraino! Ikasi zian ingelesez ere-eta». Benjaminak Mantxesterreko inglesa bat ere txoratu zuela dio. Eta kontu gehio. Personalagoak, alegia.

«Kuidau! Ze enpainuak egiten dituen tximuaren painalekin! Haiek garbitu, ipurdia txukundu, dutxatu, kolonia bota,... umeari bezala. Beti oinetakoak erosten ari zaio -- eskuak baitauzka hantetan ere--, galdu egiten baititu, demoni-



«Hartan modeluen etxe batetara eraman gintuzten. Eseri eta pasarelatik abrigu ezberdinekin neskak, bai ederrak! Taka-taka zihoala, buelta eman eta keinu egiten zidakean batek. Lagunak adarrak joaz: «Honek zeukak gorputza! Zer egingo hukek?» -«Mekaben Rusia! Harrapatu ezkerro, dauken tipoarekin, heldu batzuk emango nizkioke ohean!». Besotik ere heldu ninduan eta ti-ta!, lau musu, hemen ez bezala, beldurrez bat emateko. Barrura pasa eta abrigu eta sonbreiruak probatu. Haundi xamarra bata eta garestia bestea. Abrigua astrakanezkoa, txelin asko. Esan nuena, txeline ez baino txolin ederrak gaudek eginak gu! Vienen erosiak ditugu, baita oinetako eta estranjeroen alkondarak. Vienen, Nafarroan esaten dut bromatan! Fotorrafia ere atera ziguten (haiek algarak eta txaloak). Argazkia esaten diozue, ezta?

yokeriak egiten dizkio; erropak, trajea erosi zion Kalaorrako ume erropa denda batean, orain hurrengoan».

Bere seme Lontxoren tximuaz luze mintzo zaigu, Levanteko plaietan gainez-gain tximuzale tximaluzeak eta azkenean hona etortzea erabaki duela, lagun-tzaile bat ere baduela, argazkien kontrolerako; latsa-edo piska bat badu tartean, batzuk parre egiten, omen, baitiote, baina, azken batean, ez dabilela hain gaizki; Juan Joxek berriaz, gaztainak erretzen dituela Zumarragan era berrian, bera bezalako gutxi; hanburgeseriarekin festarik festa eta azeituna eta igali sikuekin, eztiarekin, feririk-feri, ateratzen duela; orain, sukaldari ikasten ari da, postu iraunkor baten atzetik.

Bizi-nahi

Gainontzean, makina bat parre egingakoak dira, arreba Kontxita ere halakoxea dute, Benidor osoak ezagutzen du, aidanez. Han dute etxe bat eta Florentinok Kalaorran beste bat. Gure heroiak berak beste irrikirik ez du: bidaiatzea. Austria, Suiza, Estaduko txokoak, kajao-rrasak jartzen dituzten bidaiak aprobeztatzen ditu, alargun geratu zenez geroztik orain zazpi.

«Zer pasatuko? Lagun bat oso mundutik ibilia dut eta hari lagunduz ibili gara 89an». Suizatik Austriarako hemezortzi km.tako tunela, Tirol-a, «Izotzezko itxaso», Viena, eta Espainiako mila puntu aipatuz (Gandia, Benidor, Errioxako Marbella, S. Pedro de Alcantara, Puerto Banus: «Hura duk gauza, hura!», salafiestasak, Kalaorrako etxea...) zer ikusia badagoela munduan eta luzamendutan aritzen zaigu. Andre zenak «aurreratutako txanponak gastatzen» ari omen, alargunaren omenez.

«Erretiratutakoan aterako gara», esaten zion; putza!, ezin izan zuten elkarrekin disfrutatu, jubilatuta eta berehala hil bait zitzaion.

Beren gazte denboran, frankismo garaiko Gipuzkoako parte honetako mundu itxian, beste mundurik bazela jakin balute; «aterako ginela lehenago! Ikusi behintzat. Gure mutilak egin duena: hark dirurik ez du izango, baino zer ez du ikusi?!».


Beren garai trixteetan beharko zerbaitekin poztu, ahazteko, ogi-faltak-eta. Anai zena ogi-jale amorratua eta garai hartan gure ama zenak komeria galantak zeuzkan etxean. Ogia behar zuela eta ogia

behar zuela, umeak. Goyanekoen tendara joan, han edukitzen zuten estraperloan ogia, puska bat etxeratu eta to. Ama zena esanda zegok mutilari: «Nik hiri egin beharko diat, lau ko ogia lotu lepotik eta jantzak, ea nahikoa jaten duan behingoz!».

Halere, alegrarazteko makinak dirudite Gastesi tarretakoak, beti umorean («gure anai zena bezalakorik piska batean ez da aterako»), letxe txarrean ere jarri izan diren arren; «bronkio puta hauek izurratu naute», dio Florentinok, bere osasunagatik errezatze eskatzen digula.

Ataundarrak legez, baita inpernuko zuloan edota ilargian, beren xexto eta guzi, aurkitu ahal izango duzue Gastesi tarterikoren bat. Pernando amezketarrarenak handiak izango ziren, baina ez ditugu amutsagoak Gastesi legorretarrak. Urte askotako!

Jon Arano/ Mikel Aramendi



Ni vascoespañol nauze



Ni aldiz, basquefrançaïs .




Herriak « Bobo » erraten dit



Diagnosia zuzena ...



... Skyzofrenia bada ere



SK

1990: Alfabetatzearen Nazioarteko Urtea

Gizakiak idazteari ekin zionean atera omen ginen prehistoriatik. Ondo berotu zizkiguten buruak behintzat kontu horrekin, eta ez ziguten sekula esan idaztea eta irakurtzea gizarte bakoitzean gutxiengo baten eginkizun eta ahalmen zenik, beti boterearekin (estatu nahiz erlijioarekin) lotutako kastarena.

Gaur egun, sobra ere, mendebalde aurreratu honen lorpen haundienetakoa da derrigorrezko eskolatzeta eta gure artean analfabeto gutxi omen dago, demokrazia eta aukera berdintasunaren aldeko apustuari esker. Lorpen hori mundu guztian heda dadin, U.N.E.S.C.O.k iazkoa Alfabetizatzearen urtea izendatu zuen, eta gure bazterretan ere Letrakit dela edota Udalek (Ordiziakoak, e.a.) "beste" mundu horretan" (nola deitu Hirugarren mundua, garatze bidean doan mundua...) jendeak irakurtzen zein idazten ikas dezan eman du diru eta babesik.

Hain urrutira joan gabe, mendebalde aurreratu erizten diogun honetan zifrak beldurgarriak dira. «*Unescoren Albis-tariak*» 68. zbkian dkarrenez, Kanadan biztanlegoaren %25ak hutsune larriak omen ditu irakurtzeko eta idazteko eta Frantzia 2tik 8 milioi bitartean jartzen dute analfabeto kopurua. 1972an Britainia Handian elkarte pribatu batek kale-ratu zituen datuak zirraragarriak ziren: 16 urte eta hortik gorako gazteetan %7-10ak testu bat nola-hala irakurtzeko gauza ozta-ozta zirela irteten zuten eskolatik, eta bi miloi inguru analfabeto zeudela Erre-suma Batuan.

Gure animoak lasatu ohi dituen alfabetizazio grinak badu gainera iruzur oke-



rragorik: irakurtzen alegia, ikurrak be-reizten eta lotzen ikasi du gehiengoak. Baina zeinek, nork erakusten du ulertzen.

Batetik, irakurzaletasuna (eta Euskadikoa goitik omen dabil) oso kaxkarra da. Haurrak dira irakurtzen duten bakarrak, eta hori ma-me-mi-mo-mu ikasi arte. Garai horretantxe kezkatzen dira gehien gurasoak, gero 15-16 urterekin seme-alabek irakurtzen ote duten aztertzea ez da hain arazo larria. Egunkaria bera ohiz, egunero, irakurtzen dutenak %8-10 bi-tarte dabilta eta hori da eskuragarriena. Orain, begiratu besterik ez dago, estrineko orrialdeak ondo erakusten du zein den informazio eskatuena: kirola.

Bestetik, jakinduriaren espezializazioa dago. Jakintsu jotzen direnak ere, oso esparru txikian dira jakitun, eta sarri ez dira beste alor batean dibulgazio mai-

lako gauzarik errezena ere ulertzeko gai.

Gauzak horrela, nabarmen da, gure gizarteak orduan eta axolagabeago erakusten duela bere burua jakintzaren arloan, eta orain ere, Egipto zein Txinan bezala, eskribau-kasta bat ari dela nagusitzen: boterean, zerbitzuetan, lanean edo denbora-pasa batzuetan kokatzen dena, eta telebista zein irrati bidez gizartearen nondik-norakoak xehetzen dituen, eta gero guzti hori "roilo" zatar bat dela pentsatuz, 14 urte arte eskolan ikasitakoarekin muduari aurre egingo diolakoan dagoena.

"Pikapiedras" marrazki bizidun haie-tako andre-gizonak bezala prehistoriara itzuli da gehiengo aurreratua (inoiz atera bazen behintzat!).

Maite Erauskin

- Zerbitzu zuzenak furgonetarekin
- Zerbitzu nazionalak
- Zerbitzu internazionalak

gaur
express
mensajeros-mezulariak

BEASAIN 88 89 38
88 83 17

ERAKUSKETA
SUKALDEKO TRESNAK

Alpe

Mariaratz, 4

20200 BEASAIN

88 86 84

Urdaneta, 68

20240 ORDIZIA

LAZKAO: Poliziaren 1.go objetiboa

Uztailaren 21.aren goizalban ikurriña handi bat agertu zen Lazkaoko Beneditarren komentuko dorre altue-
nean. Egun berean, hamaiketarako, Etxebarrietaren arimaren aldeko meza bat iragarririk zegoen. Goizeko be-
deratzietan eta hamarretan eginiko bisi-
tetan, bi udaltzainekin zihoan Begiristain
alkateak, bertara sartu eta, ikurriña ken-
tzeko baimena lortu zuen Priorearengan-
dik. Honen erregu batekin: egitekoa ha-
maiketako meza ondoren arte atzeratze-
kotan, Aita guztien presentzia beharrez-
koa bait zen, Komunitateko ofizioa izaki.
Ontzat eman eta hala irten zen komen-
tutik alkatea.

Gertakariak eta dialogoak orainaldian kontatuko ditugu.

Meza-erdi aldera, goiko koruan lau gizaki sartzen dira arrapaladan, meza entzuten ari diren fededunekin era txar-
rean portatuz eta komentuko morroia berekin dutela. Zarata haien aurrean, Aita Priorea jezarlekutik altxa eta abiatzen da korura, honen ate-aurrera hiru sujeta ate-
ratzen zaizkiola eta segidako elkarrizke-
tari bide ematen dela haien eta Priorearen artean:

--Qué hacen ustedes aquí? Soy el Superior del Monasterio. Pueden indicarme con qué permiso entraron ustedes?

--Somos funcionarios y estamos cumpliendo órdenes.

--Ustedes son funcionarios? Quiere hacerme el favor de enseñarme la documentación?

--No tenemos por qué enseñarsela. Ahí dentro está el jefe y entiéndase usted con él; nosotros cumplimos órdenes de la Superioridad.

--Pero ustedes han entrado por la fuerza, y, o hacen el favor de salir de aquí o me enseñan su documentación. No puedo permitir que en el Monasterio haya gente sin que yo sepa de quién se trata.

Momentu horretan taldeko batek kartila bat erakusten du, zeinaren azalean, moldeko hizkietan, «Guardia de Franco» irakur daitekeen.

Hori ez dela nahikoa adierazten du Prioreak orduan. Baina ez du lortzen beste dokumentu garbiagorik erakus die-
zaioten. Bienbitartean, goiko koruan

Lazkaoko Beneditarren Monastegia. Frankismoaren aurkako erresistentzia-gune garrantzitsua.



dihardute aipaturiko lau morroiak, komentuko mirabea dutela. Lauen eta Priorearen arterkoa, gutxi gora-behera, hau-
xe:

--Con qué permiso han entrado ustedes en el Monasterio?

--Nosotros somos españoles y no podemos permitir que haya una bandera separatista en la torre de su convento.

--Pero, quiénes son ustedes? Hagan el favor de enseñarme su documentación para que yo sepa de quién se trata. Quién es su jefe?

--Aquí no hay ningún jefe.

--Cómo que no hay ningún jefe! Si los que están en la puerta del coro me han dicho que están guardando las espaldas a su jefe. En qué quedamos? Alguién de ustedes me está mintiendo. Hagan el favor de salir inmediatamente en evitación de mayores males. Bastante mal han hecho ya ustedes entrando aquí por la fuerza.

--Nosotros no hemos entrado por la fuerza. Hemos llamado a la puerta y el señor este (komentuko morroia seinala-
tuz) nos ha acompañado...

(Komentuko morroiak hitz egiten du):

--Petxuan jarri didate pixtola eta oneraiño laguntzera behartu naute.

--Todo eso no tiene importancia. Lo importante es que se retire la bandera y lo demás lo arreglaremos nosotros cuando venga la Guardia Civil.

--Lo importante es que ustedes salgan de aquí inmediatamente.

--El que va a salir es usted, si no...!

Begibistakoak direnez zer nolako itxura txarrak hartzen doazen gauzak, korutik

jeistea erabakitzen du Prioreak; baina lauetako batek (gerora jakin dugunez poli-
ziak) jarraitu eta hauen antzeko hitzekin arrapostu egiten dio:

--Usted, o se marcha a la calle o se queda aquí arriba.

Hau entzutean, poliziarengana jirutzen da Priorea eta ikusten du nola hark pistola batekin desarratzeko amenazu egiten dion). Prioreak galdetzen diona orduan:

--Qué lleva usted en la mano?

--Yo no llevo nada...

--Cómo que nada! Se atreven ustedes a entrar en un Monasterio con las armas en la mano. Esto es algo que no tiene nombre!

Une hartan elizatik irtetzen dira poli-
ziak, Prioreak, gazte- talde batekin ba-
tera, inolako dokumenturik erakutsi nahi gabetanik, koruko atean daudenei galde-
keta egiten dien bitartean. Honakoak Priorea eta hiru indibiduen artean gu-
rutzatzen diren hitzak:

--Ustedes han penetrado por la fuerza en una casa ajena; además, es un Monasterio, y ustedes han allanado la clausura.

--Qué clausura ni qué...! Estamos hasta la coronilla de clausuras. También ustedes han permitido que penetren en esta casa a poner una bandera.

--Yo no tengo por qué contestarle a usted sobre este punto. A lo sumo, tendré que presentarme ante el juez para hacer un descargo. Pero yo no he penetrado en su casa y, sin embargo, ustedes han penetrado por la fuerza en la mía.

--Yo no hago más que cumplir órdenes.

Entiéndase con los jefes. Yo no puedo salir de aquí mientras no me ordenen mis jefes, que me han mandado venir aquí.

--Es cierto que hay una bandera en la torre; pero el señor alcalde ha venido a pedirme autorización para retirarla y yo se la he dado por escrito. Aquí tienen ustedes la copia. Es al alcalde a quién corresponde tomar las medidas para retirarla y no a ustedes.

--Qué alcalde ni qué obispo! Esa bandera la retiramos nosotros.

Bienbitartean, gertatzen ari denaz ez dira guztiz ohartu elizakoak, nahiz eta zerbait ezohizkoa suertatu dela jabetu diren. Portikoan bertan nahaspila latza. Aita Priorearen aurka pistola erakutsi duen pistoleroa han da beste hamar poliziek batera. Priorea zuzentzen zaio:

--Por favor, salgan todos ustedes a la calle. Esto que están haciendo es un atropello que no tiene nombre.

--No saldremos hasta que hayan bajado los que han subido al tejado y, ay de ustedes si les ocurre algo!

--Desde luego, ya veo que tiene usted su pistola en el cinto.

--No solo yo; las tenemos todos.

Ikurriña kentzera igotakoak teilatutik jeisten dira anartean. Ernegaturik datoz, zaila suertatu baitzaie, ze azken harmailak grasaz igurtzi eta zipriztindurik baitzeuden. Meza ez da bukatu oraino. Jau-nartzearen ordua da eta polizietako batek oihu egiten du korutik, eliztarrei zuzenduz: **«Cobardes, cabrones, gritad todos Viva España!»**. Pistoleroak, poliziak edo zirena zirela, meza amaitzen den horretantxe atereaz doaz komentutik. Portikoan --intenzio probokatzaille hutsarekin-- builaka jartzen da polizia: **«Viva España, viva España!»**. Jendea konturatu da eta ez zaie kasurik egiten.

Baina poliziek ez daramate ikurriña bakarrik, baizik eta gazte bat ere badaramate, loturik gainera. Priorearen interbentzio berri bat, gazteari besotik eutsiz, honokoa diotsala poliziei:

--Este chico no sale hoy de Lazkano. Este chico no da un paso más con ustedes.

Poliziaren erantzuna, hauxe:

--El que va a venir con nosotros es usted.

Polizietako baten amenazuaren tamainaren aurrean, atzera egiten dute gainantzekoek, Priorea pakean uztea hobe dela deliberatuz. **«Será mejor que le dejemos»**, entzuten da. Orduerdi geroago,

“Seat” beltz batean, beste bi polizia agertzen dira. Aita Priorearekin egon nahi dute. Komentuan sartzen doazen heinean, Aita Priorea mehatxatu duen polizia nor zen galde egiten zaie, aho bete hortz gelditzen dela galdegilea:

--No se preocupe. Eso ya lo aclararemos más tarde.

Azkenean, bostekoa eskaintzen du pistoleroak, hurrengo dioela:

--Yo soy católico, apostólico y romano. He estudiado en los Escolapios. No me gusta meterme con nadie, pero cuando se llega a ciertos extremos no me queda más remedio que actuar en la forma en que lo he hecho.

Prioreak, kosta-ala-kosta, bere izena jakin nahi, baina ez alferrik! Ordubatak laurdengutxietan hanka egiten dute komentutik poliziek, ez aurretik, horratio, beraietako bat elizara sartu eta mezari buruzko aukerak gainetako orriak miatu gabe. Propaganda subertseiboa aurkituko zuelakoan.

Ordubata inguruan iristen dira “gris” ez betetako jeep bat eta bi autobuskada, mezetan egondako jende apur bat gelditzen den plazara zuzentzen direlarik. Inolako abisurik ez eta edozernolako aurreikuspen gabe, automobiletatik jauzika, borrak atera eta ezeren kontsideraziorik gabe, hau, hura eta bestea kolpatzeari ekiten diote. Taldeak sakabanatu eta norabide ezberdinak hartzen dituzte.

Gertakari hauetan atxiloturik izan zen, sei gazte eta bi neska, zeinak Beasaingo Guardia Zibilarren kuartelera eskuloturi eramane zizuten. Atxilotuetako bat Lazkao-txiki bertsolari ospetsua zen, Zubiarra anaiak, herrian bizi den burgostar bat, Murua abizeneko ormaiztegiar gazte bat, Legorretako neska-mutil pare bat eta Idiazabalgo beste neska bat.

Ohizkoa denez, belauniko eta besoak zabalik egotera behartu zitzaizkien detentuei, egoera horretan hiruzpalau ordutan egotea behartu ere. Jada akiturik, besoak erortzen utzi bezain pronto, matraileko eta ostikoz zigortua izan zen detenitu bat baino gehiago. Galderak --absurduak, guztiak ere--, kolpez eta irain zikinenekin batera zetozkien. **«Hijo de perra»** delakoa, gozonenetakoa. Andereinoekin dantzatutako “eskola” ez zen lohikeriatik urruti: **«Hoy tendrás que dormir conmigo; no te valdrán los lloros. Y no sólo conmigo, sino que después te acostarás con cada uno de estos guardias...»**.

Asalto zuzendu zuena ezagutu du da-



1967. Juan Jose Agirrek emanik, ikurriña zin dagi Eustakio Mendizabalek. Agur Euskal Herri!

goenekoz EGI-k. Irunen bizi eta Maleiras abizena duen elementua berau. “Combattente de la División Azul” ohia eta Beasaingo CAF enpresako zaindaria da.

Manzanasen heriotzaren ondoko hiru egunen eraso berri bat ezagutu du komentua. Hurrengo horretan, metrailetaz armatutako hogeitamar bat goardia zibilek komentua, baratzea eta beste zenbait egoitza inguratu zituzten. Bat ere baimenik gabe sartu eta Abadia goitik beheraino arakatu zuten, ezer aurkitu gabe. Seiretan, Andoni Azkue Prioreari, ate printzipaletik saiatu arren, debekatu egin zitoten sarrera. Ortuko atletik ahailegindu zen eta hantxe guardia zibil batek, tiroz jotzeko imintzioa egin zion, zer gertatu lekiokenaren erantzule egiten zuelarik. Priorea sartu, halere.

Aste pare bat beranduago Donostiara joan ziren Priorea eta Patxi Anaia atxiloturik zegoen Aita Onaindiaren zortez enteratzearen. Haruntza iristean, auto zelular batean, beste atxilotu zenbaitekin batera, Madrila eramane izateko zorian zegoela ohartu ziren. Hernani parean, auto zelularra jarraitzeagatik, On Andoni Azkue Priorea eta Patxi Anaia geldierazi, atxilotu eta auto zelular berean sartuak izan ziren. Bien bidaiari Gasteizko Komisaldegiari bukatu zen.

Lazkao Beneditarren aurkako pertsekuzioak aurrera darrai.

(«Gudari» -48. zkia.- aldizkaritik)
(Itzultzaile: Goierriarra)



elosegi, 16 - ☎ 943-886500
20210 lazkao - gipuzkoa

Zure zerbitzurako, LIBURUDENDA


- HAUNDIAGOTU
- EDERRAGOTU.....



—Orain arteko liburudendan (etxebehean): Liburuak, Diskoak, Kaseteak, Paprezkoak, Oparigaiak...

—Liburudendaren gainean (Lehen Etxeoinean): ERA-KUSTOKI BERRIA, haundia: JOSTAILUAK, JOSTAILUAK

Adin guztietarako mota guztietako JOSTAILUAK.



- ☐ OFIZINARAKO MATERIALA
- ☐ ESKOLARAKO MATERIALA
- ☐ OPARIETARAKO ARTIKULUAK

Amerika, 2. Tfnoa: 88 89 80 20240 ORDIZIA

KABI ALBAITEROAK

ANIMALIENTZAKO TRATAMENDUAK,
JANARIAK, PENTSUAK

Domingo Unanue Plaza, 6
Tfnoa: 88 91 62
ORDIZIA



Santa Maria, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

AUTO KONPONKETA — MARGOKETA

GAUR, C.B.

Karrozeria

San Prudencio -
Teléfono, 88 86 09

Mendizabal

20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

SUFRIMENDUA

(sexua, putak, idazleak eta beste)

Gau honetako ideiatxo(ro) hauek idazten hasi baino lehen *Dexter Gordon*en "More than you know" diska jarri dut, ea bere saxoaren berrotan sexuaz eta beste zenbait gauzatzaz zerbait txukun ateratzen zaidan.

Posible da baten batek sexu hitza ikusi, eta normalean baino errezago animatzea lerro hauek irakurtzera (oraindik gogoan daukat E. Frommen «*El arte de amar*» liburua, eta nola erosten zuten batzuk hura, bertan maitatzeko posturak eta aurkitzea espero zutelako... gero ustegabea: filosofia, azterketa teorikoa eta zera: putza). Tira bada, orduan irakurle animatu horrek alde zuretik jakin beza artikulua moduko honetan sexua aitatu egingo dela, noski, baina literatura eta putetxeen munduari lotuta dagoen ikuspuntutik.

Oraindik ez dakit oso ondo zergatik. Kontua da bizi dugun gizartean honen "zikinean" kakaztu nahi nuela, esate baterako, putetxeen munduan, eta helburu horretara literaturaren bidez iritsi nahi nuela (akaso, (b) F. Umbral(B) ek esaten duen bezala, idazleak eta putak maila beretsuan daudelako).

Jende mota asko omen dago munduan, eta mundu asko gutako bakoitzaren barruan. Beno bada, literatura (nire kasuan nobela) saltsaotaz erreflexio egiteko aukera ederra bezala planteiatzen zitzaidan.

Halaxe hasi nintzen, poliki poliki, gauzak irakurtzen (*Vargas Llosa: Pantalen y las visitadoras; Wolfe Linda: El profesor y la prostituta; Miller Henry: Tropic de cancer; Lawrence; Sartre; Dostoievski...*) eta mundu horretan (honetan) sartzen. Nobela baten hasiera zen. Eta batzutan, egia esan, nazka nazka eginda bukatzen nuen. Batekin eta bestekin hizketan, jakin ahal izan nuen Zuberoko zenbait neska Parisera lan bila joan eta, azken erremedio bezala, nola eutsi behar izan zioten antigaleko lanbide haragikioari: prostituzioari, alegia.

Beste pasadizo bat: *Pariseko Pigallen* (han *harategi* asko aurki ditzakezu, edota neskazale ezezik haragijale ere badirenak) gazte sail bat omen zihuan euskaraz jo eta ke, hango espektakuloetaz eta berriketan, halako batean areto haietako

atezain euskaldun batekin topo egin, eta hark sarrera merkeago egingo ziela agindu zienean...

Baina Paris, Londres edo Hamburgora joan beharrean, Legorretan, Beasainen edo Zumarragan dauden maitetxeetaz gogoratu nintzen.

Behin, hauetako baten sozioak zera esan zidan garbiki: «*hauek egongo ez balira, pentsa ezak biolazioak eta, maizago gertatuko zirela*». Alegia, nolabait ere bete beharra zegoela barruko hutsune fisilolgikoa...: 20 minututan eta 3000 pezetatan.

Eta niri oso berri egin zitzaidan mundua aspaldikoa zela konprobatu ahal izan nuen: garai bateko prostituzio sakratua, gaurregungo *santodomingotarrak, Gasteizko Nueva Dentro, Bilboko Las Cortes, Donostiako kalitatezko zita etxeak*...

Fuerte. Latza. Eta mundu puta hau (batzuk honela esaaten zioten) sufrimendua dela konkluditu nuen. Eta lagun bati guzti honen berri eman ondoren, zera esan zidan: «*Baina hori lehenagotik ere bazekiagu, motel, idazteketan hobe dez zerbait itxaropentsu egitea, ilusioa zabalduko duen zerbait*».

Orduan ez hitz ez hitzondo geratu nintzen, eta duda egin nuen (hainbestetan egin dut nobela idazten ari nintzelarik). Ez nekien oso ondo zer esan. Eta pixka bat pentsatu eta gero bi gauza, behinik behin, esan behar nizkiola erabaki nuen: **a)** Prostituzioa oso fenomeno zabaldua da, sarritan haragiarena ttikiarena dela iruditzen zait. Zenbat entxufe, zenbat jauntxokeria, zenbat bankukeria, zenbat fürherkeria... bazterretan.

Eta *Pierre Parodiren* testu bat ere aitatu nion: «*Insisto en que no son los ladrones, los malos, los bandidos o los desórdenes de la mujer adúltera los que*



representan un peligro para el equilibrio del mundo, sino los justos --aún con la moral y la religión-- precedidos por el espíritu de provecho y de posesión. Eta hori salatu beharra zegoela komentatu nion.

b) Esan nion, bukatzeko, nire irakurketa, lan, hitzaldi eta abarren ondorio bezala hitz bat ateratzen zitzaidala: kaka, edo kaosa nahi baduzu. Baina esan nion, baita ere, hasieran dena kaosa zela (Bibliak hala esaten du behintzat), eta bizitza kaostetik sortuko dela, txanpinoiak zimaurretik bezala, itxaropena errealtate zikin eta ziztrin honetatik.

Gero aitortu nion guzti hori oso diskutigarria zela, eta akaso beroegi nengoela gauza hauetaz hitz egiteko... Baina adierazi ere egin nion Gasteizko *Aldekoa* idazleak bezala, ez nuela ez optimista ez pesimista izan nahi, baizik eta serenitatea bilatu nahi nuela...

Eta aitortu nion nire testuak nahi baino poetikoagoak ateratzen zitzaizkidala, erremediorik gabe, errediosik gabe... Eta akaso poesia bizitza bizigarriago egiteko bide bakarrenetakoa zela... Eta bazitekeela nobelaren bukaerak nahi baino itxaropenbide haundiagorik eskaintzea, eta pasatuko niola berak irakur zezan.

Beno, diska bukatu da (*Dexter Gordonek* orain dela gutxi utzi gaituela gogoratu dut) eta gaua isilik dago oso. Banoa ea izarrik ageri den.

Patxi Zubizarreta

Bi goierriar ilustratu

Jesus Larrañaga Txurruka, "Goierri"

Urretxun jaiotako politikaria. Aita obra kontratista zuen eta ama, berriz, plantxadora. Bere anaietako bi jesuita ziren Iruñea ondoko Xabiergo seminarioan eta hori zela eta estudiatu zuen berak han urte batzuez. Buruz azkarra, ikasle iaioa izan zen, kultura orokor bikaina bereganatu eta grekera eta latina bikain asko ikasi ere bai.

Bere errebeldia zela kausa bota zuten seminariotik. Berehala hasi zen metaleko langile bezala lanean, peoi kualifikatua izan zelarik. Urte haietan Gaztedi Abertzalekoa eta ELAkoa izan zen. Primo de Riveraren diktadura garaian 2.000 langile zituen Beasaingo Bagoien Fabrika handian lan egin zuen eta enpresa bertan huelga bat eratzearen ondorioz espulsatua izan zen.

Donostiratu eta diktadorekiko bere jarreragatik Frantziara "emigratu" beharra izan 1926.ean eta Le Boucau-n jarri zen bizitzen. Bere ingurunekeo langile eta komunista giroak "Goierri"ren heziketan egundoko eragina izan zuen. 1927.ean itzultzen da Euskadira, UGTren Langile Elkarteen Federazio lokalean ingresatu eta Alderdi Komunistan sartzen da.

Etsiezinezko lana

Bere gaitasuna kontutan hartua izan, sindikatuko zuzendaritza karguk okupatzen ditu eta PCEren Gipuzkoako Komite Probintzialerako aukeratu izaten da. Etsiezinezkoa da bere lana. Jakako 1930ko altxamendu aurreko egunetan behin-behinez atxilotzen dute eta 31ko otsailean ateratzen da libre.

Errepublikak proklamatu eta gero Federazio lokaleko idazkari hautatzen dute eta lan horretan ihardungo da frentean, Gipuzkoan gertatzen diren hainbat huelga bultzatu zituelarik. 33.ean "Euskadi Ro-

ja" aldizkaria sortzen du. Bertan idatzi, inprimatze lanetan aritu eta kaleetatik saldu ere egingo zuen.

1935.ean Euzkadiko Alderdi Komunistaren eratze kongresu ilegalean parte hartzen du. Bere Komite Zentral eta Burorako aukeratua, 36eko uztailako altxamendu militarraz gero Donostian sortutako delako Defentsa Juntan "Gerra-komisari" kargua eman zitzaion. Errepublikarren Bizkairako erretirada ondoren Asturiasa abiatzen da "Meabe" batailoia komandatu. Madrilgo Gobernuak Euzkadirako Komisari Orokorra izendatu zuelarik, Euzko Jaurilaritzak onartuko ez zuen izendapena.

Bere alderdikideen artean itzal galanta zuen, euskal abertzaletasunetik etorri arren, azken korronte horren autoritateekin erlazio zakarrak zituen bitartean.

1937.eako uztailako 27-an Santandergo PC-k antolatutako miñin batean berak eginiko interbentzioak errepublikar zenbait sektoreen protestak eragin zituen Euzko Jaurilaritza erasotzen baitzuen eta, azkenean, argitu egin behar izan zen PC-ko militante gisan hartu zuela parte ekitaldian eta ez Ejerzitzoko komisario legez.

Norteko Ejerzitzoaren Brigadako Komisario Ordezkar bezala onetsia izan zen urte bereko abuztuan. Sektorearen errotzearen ondoren Zentrora iristen da eta Alderdiaren Komite Zentraleko komisio politiko-militarrean eskuhartzen du. Casadoren kolpearen hurren Levante aldean lan egiten du, nekaezin, Larrañagak. Alderdikide hainbat bere lanari esker gertatzen da salbu.

Azkenik, frantzialdera ateratzea lortzen du, eta El Havretik Amerikara, Dela Salle itxasuntzi frantziarrean. Bidaia Dominikar Errepublikako Puerto Platarainokoa izan zen, handik La Habanara irten zelarik, zeina espainiaratzeko komunista askok erabiltzen zuten eskala zen.



Lan etengabearen aroa izan zen: bidaia kondiziotan prestatzeko laguntza eman zioten Bizente Uribe eta Julian Grimaurekiko elkarrizketak batipat. Itzuli beharrekoak klandestinitatearen oinarritzko arauak txuxen gorde zezatenaren aldeko porrokatua eta esijitzailea izan zen Larrañaga. Gerora, New York-erako abiatzea etorriko zen, bertan Ramon Ormazabalekin elkarrizketatuko zelarik.

Eta, amaitzeko, 41.eko irailaren hondarrean, portugaldar itsasuntzia zen "Gaza"n gorderik partitzen dira lagun batzu. Urriaren erdialdera Lisboan atxilotuko dituzte Larrañaga, Isidoro Dieguez, Asarta, Garibay eta Gago. Lisboat Seguritate Zuzendaritzan interogatu dituzte portugaldarrak, "El Cadaver" bezala ezaguna zen polizia espainolaren kooperazioarekin. Ixtanpatean eramaten dituzte Espainiara eta Valencia de Alcántarako polizia frankistari entregatu.

1941.eko urtarrilaren 19 "ospatu"tako kontseilu sumarisimoan, Dieguez, Asarta eta Girbau kideekin batea heriotz zigorrera kondenatua izan zen Jesus Larrañaga, bi egun geroago afusilatua izan zelarik.

HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

OSTATU TABERNA

Giro Jatorra

IKAZTEGIETA

Antonio Garmendia Otaolako

Beasaingo Kale Nagusiko "Glorieta-etxea" deritzaionekoan jaiotzen da 1905ko maiatzean Antonio Garmendia de Otaola. Otaola dorre-etxeko jatorria zekarkien amaren aldetik.

Bere jaioterriko Notre Dame de las Servantes de Maria kolejoan eta HH-ren Eskola Kristauen kolejoan egin zituen ikasketak harik eta Jainkoaren deihadarra entzun eta haren atzetik Jesusen Konpainian sartu zen arte.

«Curriculum» luzea

Jada jesuita, Filosofia Doktorautza egin zuen Erromako Unibertsitate Gregorianatik eta Pedagogia eta Psikologia Toulouse eta Lovainan, Europako zenbait Unibertsitate eta Goi-zentruetan zabaldu zituelarik ikasketak.

Hegoamerikara joan eta ikasketak hobeaz gain, Colombia eta Ecuadorren nahiz Europako beste zentru berezi eta Unibertsitateetan ikasle izan zen. Ikasketak bidaietan Hego eta Ertameriketako hainbat herrialde pasa zituen.

Pedagogia-lana oso zabala berea: Malagako Ikastetxeko Prefekto Orokorra, Ikasketa Zuzendari Sevillan, Lovainako Unibertsitate Slave eta "Belarmin" Kolegio Majorreko errejenta, Gijneko Unibertsitate Laboraleko profesore, baita Salamankako Pontifizioan, "Sociedad Española de Pedagogia y Psicología" zelakoaren partaide, "Instituto Jurídico Suárez" eta bestelakoak ahaztu gabe, makina bat kongresuetan parte hartu zuen larrik.

Deustuko Filosofia eta Letren fakultatean bere espezialitateko ikasgaiak irakatsi zituen, Bizkaiko Selektzio Eskolarrereko zuzendari eta Irakurketa Onen Bilboko Liburutegiko konsiliari-zuzendari; psikologo gisan Garmendia Otaolakok orientabide eta lanbide selektzio ofizina-laborategi fundatu eta Lanbide Hezikuntza Industrialeko bokala izan zen.

Inkixixio guztien buru, hizlari eta publizista, aldizkari tekniko eta goi-zabal-kuntzakoetan argitaratu zituen artikulak. Bere obren artean "Lecturas buenas y malas (a la luz del Dogma y la moral)" --4 suplementu ere baditu obra-- tzar ho-



nek, frankismo garaiko zensura hainbaten oinarri delarik--, "Educación cinematográfica", "Estética y ética del cine", "Inquiridón cinematográfico", "Instituto Católico de Estudios Técnicos", "Jesuitas y obreros", "Voluntad", "Beasain, patria de San Martín de Loinaz", eta abar.

Hau ere goierritarra genuen, Jesus Larrañaga bezala. Tira, ez gara hildakorik juzkatzen hasiko. Beude, goian edo behean.

Kexexo

Liburuak

«Pernando, bizirik hago oraindion».

Xabier Mendiguren.

1988.eko Toribio Alzaga

Lehiaketan (Antzerki sailean) irabazle. Euskaltzaindia. Bilbo Aurrezki Kutxa.

Pernando amezketarra txikiari karraxi batean deitzen omen zion beti amak. Karrerarik ez zuela aterako seme malapartatu harekin! "Pernando, egintzak hau", "Pernando egintzak beste hori", "Pernando, etor hadi hona", "Pernando, joan hadi harako hara", "Honek baserria altxatu! Putza, hau dek etxekalte!", "Pernando, Pernandooo!" eta gerotxo ere bihurri izaten jarraituko zuen hark: "Ez noala oraindionoo!"

Hortik, antza denez, lan honen izenburua, pasarte esanguratsu horren omenaldian. Baina beste motibu bat ere izan liteke: oraindion bizi dela gudan Pernando.

Ezaguna da guztion artean amezketarra. Txikitatik zekarren berezko sena Pernando pikaro ahalen hark, ateraldi xelebre eta xorrotxak, txisteetarako abilezia, bertsoetarako, errimatuz hitz egiteko, familia aurrera ateratzeko... eta edozertarako, bai kuantu!

Xabier Mendigurenek duela dezente prantatu zuen obra hau tularako. Egin duena Gregorio Mujika eta Joxeantonio Ormazabalek jasotako Pernandoren pa-

sadizuen kopia bat besterik egitea ez da izan, horretan oinarritu bai baina, horrez gain, beasaindarrek hain ongi biltzen eta erretentzen dakien etxeko, supazterreko edo baserriko euskera eranstea, detailera.

Pernandoren istorioak beste era batean jarriak irakurtzeko parada baino gehiago eskaintzen digu Xabier Mendigurenenak. Gorputz berri eta eroso bat eman dio Pernando amezketarrari.

Egileak esan digunez, asmo jakin eta zehatz batekin idatzi zuen komeria hau: Beasainen sortzeko zorian zegoen antzerki talde batek obra bat eskatu eta berak hau idatzi, antzerki apal eta xumea, lagun koadrila baten artean, bitarteko handirik gabe --horretarako pentsatu zen dekoratu ximplea eta obra erraza, barregarria--, Goierrri osoan zehar herriz herri emateko.

Pertsonaiak ere, aurretik erabakitako aktoreentzat propio pentsatu eta egokituak dituzu. Hala, Pernandorena Iñigo Eguren txiste-kontalari ezagunak egin behar zuen, eta apaizarena berriz, Pello



Urretabizkaia harakin muxu-gorri eta bertsozaleak. Talde hura ez zen gauzatu tamalez, baina idazlana eginda dago.

Han eta hemen agertzen diren bertsoak ere --azkeneko fandangoa kenduta-- aipatutako bi beasaindarren artean idatzitakoak dia. "Egunen batean norbaitek antzetzuko duelakoan, bihoakie bi hauei nire eskaintza".

Gure Goierrri honetan horren makal --ia hilik-- dagoen teatro giroa bizkortu nahian inongo talderik jaioko balitz, bere eskura izango omen luke irri antzerki honi ekitea, egileak dioskunez. A-ber-ba-den!

J.M.A.

Goierri, Aita Larramendiren Corografian

Corografia de Guipuzcoa liburuak gure herrialdea osoki hartzen du, baina tarteka-marteka Goierri zehatz-mehatz heltzen dio. Hara hemen artikulutxo honen helburua. Nola ikusi eta deskribatu zuen A. Larramendik bere liburuan Goierri eskualdea?

*Pello Joxe Aranburu **

Aita Larramendi, XVIII. mendeko gizon erraldoitzat agertzen digu Jose Ignacio Tellecheak, jesuita honen historialari adituak, baina erraldoi zapuztua dio.

Bere hirugarren mendeurrena ospatu berria da Andoainen, hemen jaio bait zen, 1690ean. Espainian zehar hiri anitzetan ikasten eta irakasten ibili, Baionan lau urtetan, Mariana erreginarean aitorle izan ondoren, 1734ean Loiolan ezkutatu zen, eta 1766an hil.

Loiolan iragan zituen urteetan, Aita Larramendi Gipuzkoak errekupeatu egin zuen. Herrialde hau gehien maitatu zuen gizona zen, eta ideia honen lekuko garbia eta froga bere "Corografia de Guipuzcoa" da, Tellecheak dionez. Liburu hau 1754 urtean idatzi zuen.

Aipa ditzagun puntu soil batzu.

Oria ibaia

Gipuzkoak sei ibai ditu eta hauen artean emaritsu eta luzeena, Oria da. Honak, Zegaman jaio ondoren, Segura, Idiazabal eta Beasain zeharkatzen ditu; Larramendik ez du Olaberri aipatzen. Villafranca-ko eta beste askotako zelaia ikaragarri ondoren, Tolosa baino lehen Arexes ibaiadarrarekin elkartzen da.

San Adrian edo Peña Horadada

Leizarrete edo San Adriango portuak urak Gipuzkoa aldera ixurtzen ditu; alde honetatik Gipuzkoako herri batzuren jurisdiziopean dago lur eremu hori, eta beste aldetik Arabako lurra da. Portu honen gailurrean, haitz zulatua, Peña Horadada deitua eta historian oso sonatua dena dago. Hemendik pasa ohi da Arabatik Gipuzkoarako posta-bidea, eta haizpe barruan San Adrianen ermita eta benta daude. Euria egiten duenean, Araba aldean erortzen dena Mediterraneo itsasora doa, eta bestea Ozeanora.

Liburu bereko beste pasarte batzutan

ere aipatzen du san Adriango pasa-bidea. Arabatik zetorren bidaiaria harrituta gelditzen zen, haizpe hori pasa bezain laster --hainbeste mendi, eta hain altuak direnak ikusita--, eta paraje horietan ez zela ez etxerik, ez biztanlerik pentsatu ohi zuen.

San Adriani buruzko aipamenak ez dira hemen bukatzen. Mariana idazle eta gehiagoren ahobrokeriak zuzendu nahi izan zituen Larramendik. Mendi honen gailurretik, Aizkorri noski, nahiz ez aipatu hau, Ozeano eta Mediterraneo itsasoak ikus zitezkeela idatzi omen zuten; Larramendik, berak ziurtatu nahi izan zuen gehiegikeria hori, baina tontorreraino iritsi baino lehen etsi egin zuen.

Beste zuzenketa bat ere egin zion mendi horretaz Murillo idazleari. Mendi honetan lurpeko bide bat zegoela eta Bizkaitik Nafarroaraino eta Espainiatik Frantziaraino joaten zela esan zuen non-bait.

Larramendik, kritika ironikoaz baliatuz, zera ihardetsi zion: zulo horrek hiru-geitazortzi pauso besterik ez zeuzkela, ez zela lurpekoa, haitz garai baten zuloa baizik, eta lehenik Arabatik Gipuzkoara eta ondoren, nahi izanez gero, Nafarroara, Frantziara, Flandesa edo Alemaniara jotzen zela.

Aralar

Aralar mendi ospetsua eta bere larre bikainak, Villafranca, Amezketa eta Abaltzisketa herrien jurisdizioak direla eta gailurrik altuenak bi hauek direla dio: Larrunari eta Ganboagaña. Orain dela hogeitamar urte, hots, 1704.ean, kobre fin-fina duen meategia aurkitu zen mendi honetan eta gaur egun ere oraindik, 1750 hamarkadan, mea ateratzen jarraitzen dute.

Liburuko pasarte berean, Segura, Gaboria eta Ormaiztegiko meategien aipua dator.

Goierritarron bizimodua

Iztuetaren urteetan, 1767-1845, 120.000 biztanle zituen Gipuzkoak. Herri eta jendez jositako lurralde luzatua deitzen dio andoaindarrak gure herrialdeari. Gehiengoak nekazaritzatik ateratzen zuen bere eguneroko ogia, baserri sakabanatueta eta bakoitzean bi edo hiru andre bizi zirelarik. Goierri, Beterri baino baserriar saiatsuagoak eta maiztergoak garestiagoak ziren. Errentak espeziatan ordaintzen zituzten, gari, kapoi, urdail, gazta e.a., eta artoa etxerako gorde ohi zuten.

Goierritarron janzkera

Daturik ugariak eta kuriosoenak, noski, herrialde osoari begira emanak izanik ere, badu aipamenean bat edo beste goierritarrentzat.

Gipuzkoan XVIII. mendean, jantzi txukunak erabiltzen zituzten bai kalekoek bai baserriarrek. Beste xehetasun ugariaren artean, jai egunetan eta igandetan baserriarrek, elizara zetozenean, oinetakoak eta abar aldatzeko jantzi txikiak zituztela dio. Eta berriro ere, Beterri eta Goierri konparatuz, hemen baserriarrek jaietan eta kalean abarkekin ikusten omen ziren, eta han ez.

Beste pasarte batean eta jokuei buruz ari delarik, pelotan jokatzeko ohitura handiagoa zegoela Beterri, Goierri baino, dioenez.

Artikulu hau amaitzeko, garai beretsuko eta Goierriko idazle baten, Iztuetaren hitzez baliatu nahi dut, eta hain zuzen, Larramendi hil berria zela idatzia.

**Ay nere biotzeko
Aita Larramendi!
Bost eguiya esan da
Joan zinan emendik**

* "Maizpide" euskaltegiko zuzendari

Beste kaso onek, gertatu zala, eun urte eta askoz geiago ditu. Penagarria bada ere, fetxarrik ez dauka. Ama batek bere seme-alabei kontatzen omen zien gertakizun au, eta seme aietako batek esanda jaso degu.

Idiazabal'ko itzai batek, bere ogibide bezela, naiz egunero ez egin, mandataria-lana egiten omen zuan. Idiazabal'tik Tolosa'ra dauden errien artean, orretarako bere idi-parca eta gurdia erabiliz.

Itzaiak, bere ustez, konfiantza aundiko adiskide bat omen zeukan. Beasain'go trenaren estazioan faktore-lana egiten zuana. Gero ikusiko degu konfiantza orrek zenbaiterainoko indarra zuan.

Itzaiak, egun batez, esan omen zion faktoreari, Tolosa'tik etxerakoan naiko diru ekarri bear zuala eta ea mesedez lagun egingo al zion Beasain'go Katea pasa artean.

Faktoreak baietza eman omen zion itzaiaren eskabideari.

Kontutan izan bear degu, Tolosa'tik Idiazabal'era etzegoala gaurko kamiño edo biderik. Billafranka'tik

Beasain'era kalez-kale joaten zan. Beasain igaro eta kamiñoa nola trenbidea gurutzatuz pasatzen zan, erderazko *paso a nivel* oneri Katea deitzen zitzaion, kate bat jartzen zutelako, tren pasatzeari gurdia, oinezko eta abarrei bidea mozteko. Bide ori bakarria zan Beasain'dik Idiazabal'era joateko.

Nunbait -zer gertatu zan gero jakingo degu- itzaia faktorearen laguntzarekin joaon bere etxeruntz.

Itzaia, gutxi gora-bera, ordu berean irixten omen zan bere etxera. Egun artan ageri ez eta etxeko danak jartzen dira kezkatu eta larri.

Ala zeudela, *tapa-tapa* an dator idi-parca itzairik gabe. Askatu omen zituzten idiak eta beren uzta-rrian, kopetakoein tapatuta, an omen zeuden itzaiak zekarzian diru guztiak. Nunbait lapurrak dirua nun zegoan etzuten arkitzerik izan.

Desgraziren bat gertatu zala-eta, itzaiaren etxekoak irteten dira itzaiaren bila. Kamiño-bazterrean ilda arkitu omen zuten. Itzaiak zeuzkan zaurietatik, garbi ikusten omen zan krimen bat izan zala.

Itzaiaren etxekoak parte eman dute Juzgaduak, gertatua kontatuz. Agintari oiek asten dira miaketan, eta auzoko etxe batean aurkitzen dute aizkora bat, gorri-arrastoak zeuzkana. Gaur ainbat analisis etzan izango eta egingo; eta aizkoraren jabea, kriminaltzat juzgatu ondoren, kartzeleratzen dute.

Aizkora-jabeak bere deklarazioetan esaten omen zuan, krimena gertatu zan egunean, altxa -aliso erderaz- botatzen jardun zala, eta gorri-une aiek zugaitz-mota onek uzten duan tinta gorria zala, eta ez odolarena.

Dana alperrik, ordea. Gizona kartzelara, errurik gabe.

Au gertatu eta gerora, ez dakigu zein urte, il eta egunik, Donostia'n gertatu da tiroketa bat, kalean. España'ko ministro edo goi-maillako jaun bat il omen zuten edo il nai zuten. Ortik tiroketa.

Bala galdu batek jotzen du Beasain'go faktorea; eta bere burua il-zorian ikustean, deklaratu omen zuan gertatua zeatzasun guzietan, zer eta nola itzaia il zuan. Bera ere tiro artatik il omen zan.

Ara, entzun degunez, gauzak nola izan ziran.

Emen ikusten da diruak zer gauza egin erazten dituan. Dirua lagun ona da norberak mendean ibiltzeko. Baiña diruaren mende jartzen bada gizona, bide txarrean sartzen da. Diruak egin erazten du mundu ontan kalterik geiena.

Bixente Barandiaranen "Iartu gabe erin bizi" liburutik. (Auspaa saila)

gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8
1								
2								
3								
4								
5								
6								
7								
8								

EZKER ESKUIN: 1.- Erabiltzen ari naiz. 2.- Iridioaren sinbolo kimikoa. Lo asko egiten duena. 3.- Detektagailu. Kontsonante erreplikatuak. 4.- Gizon izena. Tantalioaren sinbolo kimikoa. 5.- Listu, istu. Putzu. 6.- Ezeztatzeko. Bizkaieraz lepoa. 7.- Mardul. Zilarren sinbolo kimikoa. 8.- Ehun mota artifizial.

GOITIK BEHERA: 1.- Sos. Iparraldeko alderdi abertzalea. 2.- Zenbait landaren ziri zorrotzak. 3.- Kontsonantea. Bizkaieraz du. Kontsonante bi-koitza. 4.- Pozik. Zezen zikiratu. 5.- Errepikatuz irakitearen onomatopia. Zainetako likido gorri. 6.- Idi, hitz el-karketan. Atzizkia. Bat. 7.- Lerdenak. 8.- Jatorria adierazteko atzizkia. Naiz.

SOLUZIOAK

8.- Tar. Nago.
5.- Bor. Odol. 6.- It. Tsu. 1. 7.- Lirainak.
Arantzak. 3.- R. Dau. Rr. 4.- Alai. Idi.
GOITIK BEHERA: 1.- Diru. EMA. 2.- Akritiko.
Osin. 6.- Ez. Iduna. 7.- Mardo. Ag. 8.-
3.- Radar. Rr. 4.- Unai. Ta. 5.- Tu.
EZKER ESKUIN: 1.- Darabilt. 2.- Ir. Lotia.

Joxe Migel Iztueta «Lazkao-txiki»

GAIA: Konforme bizi al zera?

Doinua: Frantzes euskaldun bat
Neurria: 8ko Haundia

Ia konforme bizi al naizen
galde egiten didate,
nola mutilzar bizi naizenez
guztiok badakizute,
orain kondaira lengo zar hartaz
berriz hartu nai det parte,
Adan e(re) triste bizi izan zan
Eva sortu zan bitarte.

Bakardadean berri ez daki
norbaitek probatu ezik,
horregatikan bakardadean
nola biziko naiz pozik?
Koartean ez det lagunik eta
sukaldea ere hutsik,
badakizute inun ez dala
arantz gabeko larrosik.

Hona hemen Goiztiri AEK euskaltegiak urtero antolatu ohi duen eskolumeen arteko ipuin lehiaketako Ordiziako lehen saritua

Eguberri ezberdinak

Mundu honetan oinak jarri nituenetik bereziak izan dira niretzat eguberriak; ilusioz beteak, elurrez gainezka eta opariz alaiturik. Baina aurtengoak ezberdinak dira, eta zertxobait heldu naizenez, jostailurik ere ezin espero. Nire amari ere ez dakit zer oparitu, horregatik pentsatu dut ipuin honenkin saritzea bere urte osoko esfortzu eta lanak.

Ipuin hau, nire aitona birraitonaren gurasoen... beno, egia esan ez dakit nondik datorren, baina honela dio:

Orain dela urte asko eta asko, gizona lurreko partaide ahul bat besterik ez zenean, Andeatako mendi tontor batean, bizi omen zen familia behartsu bat. Hauek ez zuten dirurik ezagutzen, ehizetik eta lurra ematen zituen fruituetatik bizi omen ziren. Baina jakina da, neguan eta batez ere eguberrietan, lurra ez duela jaki handirik ematen eta abereak hotzarekin batera, mendietatik tximista bezain azkar jeisten direla.

Bada, urte honetako abenduaren hogeitabosta oso berezia izan zen familia honentzat. Etxean ez zegoen elikagairik ezta egurrik ere sua egiteko eta familiako partaide jakintsuenak, aita, ez zekien zer egin arazoa iraultzeko.

Seme gazteak bazituen jadanik hamahiru urte eta bere ustez, bazuen arazoa konpontzeko irtenbidea. Txikia zenean, aitona kontatu zion istorio zahar bat, non Paradisu izeneko leku zoragarri bat azaltzen zen. Bertan, urte osoan zehar jangaiak eta sutarako egurra egoten ziren eta gainera kaxa txiki batean hil guztirako janaria garraiatu zitekeen.

Burugogorra zenez, bere gauzak presatu eta etxetik irten zen goizean goiz. Berak leku hori aurkitu nahi zuen, honela gurasoei bere heldutasuna azaldu eta bide batez familia asetzeko.

Bidai luze eta neketsu honetan, zailtasun handiak igaro behar izan zituen eta behin baino gehiagotan bururatu zitzaion etxera itzultzeko ideia. Bere ustetan ordea, ez zen asko falta eta etxean bere saria jasoko zuenaren itxaropenarekin aurrera jarraitzea erabakitzen zuen.

Dagoeneko jatekorik ez zuenean, leku urrun batean dizdira miresgarri bat nabarmendu zuen, orduan argi eta garbi ikusi zuen hura zela bere helmuga eta korrika hasi zen bertara iritsi arte. Iritsi zenean indarrak berritu zituen eta denborarik galdu gabe, bi kaxa hartu, bat jakiez bete eta bestea egurrez eta



etxerako bide luze baina zoriontsua hartu zuen.

Hogeitamazazpi ordu behar izan zituen bide hura burutzeko, baina esatera zaharrak dioen bezala "gustoko bidean aldaparik ez". Hilzoriar baina pozik iritsi zen abenduko hogeitazortzigarren egun hartan etxera. Gurasoek errieta gogorra botatzea erabaki zuten, baina etxetik zertatik joan zen ikustean besarkatu eta musu bana eman zioten. Eguberri zoriontsu horietan izan omen zuen erregalirik eta esaten denez hemendik dator eguberrietan opariak egiteko ohitura zaharra.

**Gorka Garmendia
(8.C-Jakintza Ikastola. Ordizia)**

Hau eta hura

Gure herrian, Itsasondon, trenbideko apeaderoan, bagenuen faktore bat Anjel izena zuena. Berez Miranda-rra eta mutil jatorra zen. Guztiz lagun artekoa. Euskeraz, triki eta traka, gurekin naiko ongi moldatzen zen. Gure izkuntza ikasteko gogo aundia beti agertu oi zuen.

Udarako arratsalde batez, gazte multzo bat, kontu kontari geunden ipar aizea artzen. Gure artean delako Anjel ori an zegoen. Ontan Anjelek ikusten du gure lagun bat baratzen ari dela eta asten da oiuka:

-- Joxe, etorri adi tertulira!

Gure arteko lagun batek orrela esan zion:

--Motel-motel, ago ixilik. Ezkonduci, Oooo...! deitzen zaiek.

Ontan asten da Anjel: Oooooo, Joxe! Oooooooooooo!!!

Joxek, berriz, orrela erantzun zion:

--Etzekiat euskeraz ikasiko dekan ala ez. Bañan, martxa ortan, ziur negok itzai on bat izatera iritsiko aizela!

SERMOIA

Garai batean, batez ere erriko pesta nagusian, kanpoko sermolaria eraman oi zuten. Ala, erri batera, eraman dute ser-

molaria. Dalako apaiz jaun ori, izketan omen zen etorri aundikoa. Asi du sermoia ta ango San Juan, San Pedro, San Kaetano, San Jose, Amabirjiña, Purgatorio, Inpernu, Zeru ta abar. Ontan jabetzen da entzuleak kaso aundirik ez diotela egiten eta orrela bukatu omen zuen bere sermoia. «Kristau maiteok: Bukatzera noa. Sermoi motzak biotza mugitzen du eta luzeak, berriz, ipurdia».

MOSKORRA SENDATZEKO ERREMEDIA

Gure ama zana Itsasondoko Larregi baserrian jaioa eta azia izan zen. Berak

Goierriko jira (II)

13.

Lazkaon komenturik
ederrenak daude
fraile ta monja bapo
konpontzen dirade.
Markes bat ere bada
jainkoaren pare
hogeita hamazortzi
tituluren jabe
antzar hauek ez daude
defentsore gabe.

14.

Ataunek eman digu
apaizik ugari
Barandiaran horra
denen buruzagi.
Kontrabandoan ziren
lehen jentilak ari
gero handik E.T.A.ra
otsoak gudari
kasu hoiek ez dira
dozenan hamabi.

15.

Zaldibin omen dira
amorra finenak
Bilorek erre gabe
salbatzen direnak.
Gazta eta mondejo
ardi zurienak
arkakusoak berriz
horzka dakitenak
batzuk bertan daude ta
gorde ondo bernak.

16.

Egin zuten lekuan
hantxe dago Gaintza
ez da epela izaten
goizaldeko intza.
Dela nekazaritza
nahiz dela artzaintza
diru freskorik bada
ederki dabilta
malkoak prejitzeko
ez baita bizitza.

17.

Gipuzkoan herririk
txikien Arama
ziur ez dakit baina
hala dauka fama.
Politean dirudi
Goierriko dama
independentsiaren
odola darama
nork lezan euki hango
aita eta ama.

18.

Arro egon liteke
Goierri Altzaga
arterik handiena
txakurren asaba.
Goian Altzagarate
antena bat bada
bonba batek zuena
hankaz gora laga
ez nuke buruan nahi
halako zartada.

19.

Txindokik hegoatik
pixka bat gordeta
Goierriko balkoia
da Abaltzizketa.
Gainez gain joan eta
Larraitzen bi buelta
haize freskoak dizu
garbitzen kopeta
hango edertasuna
ez da berriketa.

20.

Itsasondan gezurra
omen da garesti
ijitoak dabilta
seinale ta guzti.
Lehengo pizarreriko
harrobiak noski
ezkutu lanerako
ez zetozen gaizki
hango misterioak
Huartek dakizki.

21.

Legorretan Jainkoa
zenaren lurrean
pikuak heltzen dira
ilunabarrean.
Gero iji ta uju
izarren aurrean
eroriko bazina
bide bazterrean
Kortatuk eramango
zaitu bizkarrean.

22.

Akabatzera noa
Goierriko jira
pentsa ez dezazuen
naizela kirkira.
Kanpaiak jo ditugu
heritik herrira
entzundako guztiaz
ez da zertan fida
ez da gutxi laurdenak
egiak badira.

Xabier Amuriza
(Goierriko Jaialdia
Lazkaon. 79-1-26)

kontatzen zidanez, ba omen zuten mo-
rroia bat eztarria bustitzen gustatzen zi-
tzaiona. Sarritan, neurriz, pasa egiten
omen zen. Orrelakoetan, biaramonen,
au egiten omen zun: baratzara joan eta,
batez ere negu partean, porru bat etxera
ekarri. Porru ori garbitu, txiki txiki egin
eta platera batean jarri. Gero artu zar-
tagia, sutan jarri, eta kikara bat olio
bertara bota. Olio berotzen asten za-
nean, porruak bertara bota eta prejit-
tu. Porruak prejitzean, zartagia, goraño,
ardo bete. Denak ondo, ondo naastu bero,
beroan, zartagia sutatik atera eta zerbait
ozten utzi. Ez bero eta ez otz zegoenean,

epel antzean alegia, dena jan batere geldi
alderik egin gabe. Au egitean, orrela
esaten omen zun: «Gizon jakintsu asko
izango ditut munduan, bañan au asmatu
zuena ere, ez ukan tontoa. Berrito leen
bao sasoi obean negok. Beste juerga bat
egiteko ere prest negok».

PATXARAN ETXEAN NOLA EGIN

Patxaran edo basoko aranak bildu.
Ondo eldutakoak baldin badira, gozo-
goa eta kolore obeagoa izango du eda-
riak. Litroko botilla bat irutik bat bete
patxaranaz. Bost manzanilla ale bota eta

goraiño anixarekin bete. Bakoitzak au-
kera dezake anixa lodiagoa edo meagoa
izan. Gutxienez illabete pare bat eduki.
Zenbat eta denbora geiago, urduan eta
obe. Edari goxoa ezezik dijestioa egi-
teko guztiz ona da. Batzuk bere artan
artzen dute. Beste batzuk izotz puskatxo
batekin. Gure etxean beti izaten degu eta
norbaitek kopatxo bat artu nai izan ez-
kero, pozik emango diogu.

Jexux Lete
eta Mari Karmen Azpiazu

- * ETXEBIZITIAK SALGA: ITSASONDON
- * SALNEURRI OSO INTERESGARRIAK

OTEGI

ERAIKUNTZA OROKORRAK

- * 100 ETA GEHIAGO M2.
- * TXIMENETA, ANTENA PARABOLIKOA, BEROGAILU ISTALAKUNTZA EGOKITURIK, E.A.

Tfnoa: 88 49 36

ITSASONDO



auto-eskola **ORDIZIA**

LA UNION Y EL FENIX ASEGURROAK

Padre Urdaneta, 10
Tfnoa: 88 72 76

ORDIZIA



ORION **BERRIA**



• FORD Mekanika-Segurtasuna: Zure Ford berria babesten duen garrantia ez da bukatzen 12 hilabeteko epean, zerorrek luza dezakezu babes hori 48 hilabeteetara, dituzun beharren arabera.

- Herdoilaren aurkako 6 urterako garrantia
- Bizia duen arteko garrantia
- Merkatuko garrantiarik onena.

MUJICA
Automobilak



Errepide Nagusia, 1 • 419 Km.a • Tfnoa: 88 74 00 • BEASAIN

GENERALI

Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 B E A S A I N



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:
Lazkao: 88 72 99
Beasain: 88 18 96
GIPUZKOA



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



EGUZKI

Inprimategia

Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnoa: 88 94 82
20200 B E A S A I N

GURPIL

BIZIKLETAK

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51
Nafarroa Etorbidea, 3. - Telf: 88 21 03
20200 B E A S A I N

EROSKI

KAFETEGIA

Pintxo hotz eta beroak
Eguneroko bazkariak

Tfnoa: 88 83 31

ORDIZIA



GARAJE "LAZKAO"

Renault
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO